Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana

2021eko ekaina

Aurkibidea

1. Hitzaurrea 4

2. Araudi-markoa 8

3. Planaren nondik norakoak 11

3.1. Kokapena 12

3.2. Planaren printzipio gidariak 13

3.3. Planaren bermeak 15

3.4. Planaren indarraldia 16

3.5. Planaren esku-hartze ardatzak 17

3.6. Planaren helburu estrategikoak 23

3.7. Planaren helburu operatiboak 26

3.8. Ekintza-plana 30

4. Planaren kudeaketa-sistema 50

4.1. Plana kudeatzeko egiturak 50

4.2. Plana garatzeko baliabide ekonomikoak 56

4.3. Planaren ebaluazio-sistema 57

5. Planaren komunikazioa 66

Dokumentu honek **Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana** jasotzen du.

Dokumentu hau **Elhuyarrek** osatu du, **Oñatiko Udalaren** eskariz eta Udaleko Berdintasun Sailarekin elkarlanean.

Egitasmo honekin, Oñatiko Udalak azken urteetan egindako lanari jarraipena eman eta salto kualitatibo bat eman nahi du, hurrengo urteetarako estrategia eta bide-orria ezarriz.

1. Hitzaurrea

Berdintasunerako lanean eta politika publikoak feminismotik eraikitzeko bidean aurrerapauso asko egin dira azken urteotan. Agendan agertu ere ez egitetik, genero-ikuspuntuari eta gizon eta emakumeen berdintasunaren bilatzeari agenda politikoan tokia egin, lehentasun politikoen artean kokatu eta eskuhartze, programa eta ekintza zehatzak proposatzerako bidea egin da. Horren adibide da, besteak beste, Oñatiko Udalean 2014an Berdintasun sail propioa sortu izana (Gizarte Zerbitzuetako sailetik atera ondoren), urtez urte igotzen doan aurrekontu propioarekin, eta berdintasun teknikaria jartzea. Are gehiago, proposamen zehatzetatik harago, egiteko eta errealitatea irakurtzeko molde berri batean murgiltzen joan gara. Poliki eta ez bide errazetik, baina bagoaz pausoak ematen, gizarte berdinzale eta justu bat eraikitzearen helburua ikusmiran. Hala, berdintasunerako bidean aurrera egiteko konpromiso irmoa berresten dugu eta eskuartean duzuen Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plan hau egindako aurrerapauso horien isla eta etorkizun hurbileko nahi, behar eta erronkei aurre egiteko eta gizartea feminismotik eraldatzeko bide horretan Oñatiko Udalean eta bere politiketan gida izan nahi duen dokumentua da.

Izan ere, eraldaketaren bidea egiten hasiak gauden arren, asko dira oraindik, gaur gaurkoz, gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria, sexuaren araberako diskriminazioa, generoaren baitako aukera- eta tratu-desberdintasuna, indarkeria, eta jazarpena agerian uzten duten errealitateak: lan merkatuan, partaidetza sozial eta politikoan, soldaten arrakalan eta lanaren prekarizazioan, etxeko lanen banaketan, emakumeen aurkako bortizkeria fisiko zein sinbolikoan, biolentzia estrukturalean, pobreziari eta abarri buruzko datuetan… Emakumeen diskriminazioa ahalbidetzen duten mekanismoak oraindik ere indarrean daude.

Eragin egin behar dugu, ez soilik aukera edo baldintza materialetan, baita askotan atzematen zailagoak diren baldintza sinbolikoetan ere, egungo errealitateaz, desberdinkeriez eta injustiziez jabetu, hausnartu eta eraldatzeko bidean jarriko gaituzten tresnen bidez. Argi izan behar dugu ageriko portaera eta errealitateez gaindi, desberdinkeria eta diskriminazio horiek sostengatzen dituzten gizarte egituretan (eta, hala, instituzio publikoetan ere) eragin eta hauek eraldatuta baino ez dugula lortuko errealitatea errotik aldatzea, desberdinkeriak sortu, sostengatu eta areagotzen dituzten gizarte-oinarrietan eragitea: errealitatea agerian jarriz,

hausnarketa eraginez, eta generoaren inguruan, berdintasunean eta feminismoan hezi eta trebatzeko baliabideak eta bideak jarriz, formazioa bultzatuz, legedia moldatuz, jarrera eta portaerak aldatuz, emakumeen partaidetza sozial eta politikoa mugatzen duten gizarte egiturak eraldatuz, jendea interpelatuz eta begirada heziz. Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plan hau, bada, eginkizun horretarako lan-tresna izateko helburuarekin landu eta idatzi da.

Gobernantza hitza askoren ahotan dabilen honetan, politika publikoak egiteko era berriez, eredu horizontalagoez, gertukoagoez eta justuagoez gabiltzan garaiotan, modu berri hauetan genero berdintasuna eta, areago, feminismoa, ardatz izan beharko da. Zeharlerrokotasunez baina, oraindik orain, baita berariazko helburu moduan ere, martxan jartzen diren prozesuetan aukera-berdintasuna bermatzeko mekanismoak jarriz, udal langileak berdintasunean trebatzen, lanen banaketa berdinzaleekin, politika publikoetan, legerian, aurrekontuetan, eskuhartze komunitarioan, lankidetzako proiektuetan, kontratazioetan, pleguetan, ordenantzetan genero-ikuspuntua eta klausulak txertatuta, gizon eta emakumeen arteko desorekaz jabetu eta honekin amaitzeko baliabide eta bitartekoak jarrita, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromiso irmoaz. Esan behar da, gainera, batak bestea ekarri beharko lukeela; gobernantza berdinzalea, horizontala eta partehartzailea izango bada, genero ikuspuntua (eta, areago, feminista) berariaz lantzetik berezko izatera pasa beharko litzateke halabeharrez. Desberdinkeriarik eza bilatzetik, desberdinkeriarik ezatik eraikitzera.

Horretaz gain, **zaintza-lanen** inguruko lanketa ardatz izango dugu. Feminizatutako eta prekarizatutako lanon auzia agerian jarri behar da, erantzunkidetasunera heldu nahi badugu. Hala, zaintza lanen errealitatea plazaratu eta salatu behar dugu: doakotasuna, lanoi egotzitako aitortza eza, prekarizazioa, gehiegizko lan karga, emakumeei dagokien lantzat hartzea, zaintza lanen erromantizazioa, eta zaintzaren eta emakumeen egoera (askotan emakume zaurgarrienena) are gehiago zailtzen duten beste hainbat esanahi sinboliko eta klase sozialen eta arrazializazioaren auzia, besteak beste. Hala, udaletik prekarietatea murrizteko bideak erraztu beharko ditugu, zaintzaileei aitortza egiteko, lanok bisibilizatzeko, lan-baldintzak hobetzeko, lanok demokratizatzeko. Zaintza gizartea sostengatzen duen lana da, eta batzuen erantzukizun izatetik, ardura partekatua izatera, eginkizun sozial eta kolektiboa

delakoaz jabetu eta nork bere ardura hartzeko hausnarketa eta lanketarako bideak zabaldu behar ditugu.

Ekonomia- eta gizarte-eraldatzailea bilatzen ditugu, guztientzako aukera-berdintasuna bermatuko dituena, emakume eta gizonen arteko desberdinkeriarekin amaituko duena, sexuaren araberako hierarkizaziotik horizontaltasunera igaroko dena, kondizio eta soldata arrakalekin bukatzea helburutzat izango duena eta botere-harreman molde tradizionalekin amaitu nahi duena. Ekonomia eredu duin, justuagoa eta guztientzakorako bidea egiten joan nahi dugu: proposamen berritzaileagoekin, enpresa-ekintza berrietan printzipio hauek bermatzen ahaleginduta, ekimen berrietan parte-hartuz, eredu parte-hartzaile eta kolaboratiboen aldeko hautua eginda zeintzuek desberdintasunak murrizteko eta aukera berdintasuna bermatzeko helburua izango duten. Bestelako ekonomia eta lan ereduak ere gizarte eraldaketarako tresna izan daitezkeela uste dugu, eskubide ekonomiko eta sozialak gauzatzeko bide. Eta horretarako, halabeharrez, ezinbestekoa da genero-ikuspuntuarekin landutako ereduak izatea, lan duinak eskainiko dituena eta lanen balio edo esanahi sinbolikoetan desberdinkeriak albora utziko dituena.

Nola ez, **emakumeen ahalduntzerako** pauso berriak ematen jarraitzea ezinbesteko deritzogu, emakumeak beren prozesuen protagonista izan daitezen, horretarako aukerak sortuz, baliabideak jarriz eta gizartean beraiei dagozkien eta beraienak diren baina askotan jabetu ez diren espazioak bete eta burujabe izan daitezen. Baita gehiegikeriazko harreman eta dinamiketatik (dela lanean, dela etxean, dela kalean) ateratzeko aukerak, bideak eta baliabideak eskainiz. Udaletik espazioak sortzeko lan egingo dugu, kanalak, bideak jarriko ditugu, orain arteko baliabideak mantenduta (Jabetze Eskola, Emakumion Kontseilua eta Gizarte Zerbitzuak, besteak beste), berriak sortuz (Emakumeen Etxea, esaterako) eta aurreko ataletan aipatutako proposamen guztien bitartez. Ahalduntzea zentzu zabalean ulertuta, ahalduntzea aukera-berdintasun gisa, nor izateko eskubide gisa, isilarazitako eta zapaldutako ahotsez jabetzeko bide legez. Egiteko, sortzeko, izateko, ondo tratatua izateko, lan- eta bizi-baldintza duinak izateko eskubidea oinarri hartuta.

1. Hitzaurrea

Indarkeria matxistarik gabeko herria eta bizitzak nahi ditugu eta Oñatiko Udaletik irmoki jarraituko dugu horretarako bidean. Indarkeria matxistari erpin guztietatik eta bere aldaera ezberdinetatik aurre eginez, indarkeria fisiko, psikologiko, sozial, ekonomiko zein sinbolikotik eta eremu guztietan (etxean, lanean, kalean, eremu pribatu zein publikoan). Berau genero-diskriminazioan eta gizarte eredu ez-pareko eta botere harreman nabarmenetan eraikitako testuinguruan ematen eta hor sostengatzen den errealitatea da. Indarkeria matxista jasan duten edo jasaten ari diren pertsonei aitortza, erreparazioa eta babesa zor diegu. Aurretik aipatutako esku-hartzeekin eta emakumeenganako gehiegikerien eta indarkeria matxistaren aurpegi anitzen identifikazio eta lanketarekin, formazio eta heziketarekin zein desberdintasunaren kudeaketarekin, errealitate honi aurre egiten jarraituko dugu. Akordio-sozialak lortu behar ditugu eta, hemen ere, ardurak kolektibizatu behar ditugu eta jendea interpelatu. Baina, areago, narratiba berri bat idaztea ezinbestekoa da, emakume zein gizon izateko ereduez hausnartu eta hauek iraultzeko, esanahi berriak sortu eta heteropatriarkatuak sostengatzen duen gizarte heteropatriarkal honen oinarriak aldatzeko.

Ez baitugu ulertzen emakume eta gizonen berdintasunik gabeko justizia sozialik, ezta feminismorik gabeko eraldaketa errealik ere. Herri abegikorra, bizigarria, indarkeria matxistarik gabekoa, berdintasuna eta elkarbizitza ardatz izango dituena, atsegina eta justuagoa eraikitzeko bidean pausoak egiten jarraitu behar dugu etengabe eta Oñatiko Udaletik ere horretan segituko dugu.

Esandako guztia abiapuntu hartuta, bada, aurkezten dugu Berdintasun Plan hau. Esan behar da ahalegin berezia egin dugula gure herrira egokitutako plana izan zedin. Gure herriko errealitatea islatuko zuen eta Oñatirako izango den plan bat idatzi nahi izan dugu, azken urteotako lanketan oinarrituta eta errealitatearen diagnostikoa eginda.

2. Emakume eta gizonen berdintasunerako araudi-markoa

Emakumearen aurkako bereizkeria era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen; printzipio hau NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen eta Espainiar Estatuak 1984an berretsi. Konbentzio horren 2. artikuluan, ondoko konpromisoa hartu zuten NBEko kideek: Berdintasun printzipioa legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuek erabiliz benetan betearazten dela bermatzea.

Beste alde batetik, 1999ko maiatzaren 1ean Amsterdamgo Ituna indarrean jarri zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna **Europar Batasunaren funtsezko printzipio bilakatu da.** Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikuluarekin bat, Batasuneko eta kide diren estatuetako politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

Horiez gain, Espainiar Estatuko Emakumeen eta Gizonen egiazko Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa dago. Lege horrek Estatuaren eskumen guztien arauketa modu zehatzean garatzen du. Horrela, udalek berdintasun errealaren lorpenean duten betebeharra zehazten da 21.1 artikuluan: "tokian tokiko erakundeek berdintasun-eskubidea barneratuko dute euren eskumenetan eta gainerako herri-administrazioei lagunduko diete zentzu honetan".

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikuluak, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dute, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin.

Era berean, **Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea** onartuta (Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa da lege hori), lege horren zioen adierazpenean jasotzen den bezala, **lehen mailako gaitzat jo zen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku hartzeari bultza egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea**; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere.

2. Emakume eta gizonen berdintasunerako araudi-markoa

2/1988 Legea garatze aldera, **Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeentzako ekintza positiboko zazpi plan** onetsi ditu. Plan horietan euskal herri-administrazioen esku-hartzearen oinarrizko gida-lerroak jasotzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzako eremu guztietan bultzatzeari dagokionez.

Bestalde, **Emakundek 2018ko ekainean onetsitako EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako VII. Plana** dago. Plan horretan, XI. Legegintzaldian berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduera bideratu behar duten gidalerroak bildu dira. Aurreko sei planak indarrean izan diren urteetako eboluzioaren eta aurrerapenen emaitza gisa sortu da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen onespenak irekitzen duen markoan.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak bere egin du berdintasunerako gobernantzaren ildotik lan egin beharra, berdintasunerako bidean. Estrategia horiek gehitze-efektua dakarte eta berdintasunerako helburuak lortzen laguntzen dute. Zehazki, VII. Planean, **mainstreaming-a eta gobernantza oinarrian** daude. Baina, horretaz aparte, beste hiru ardatz ere bildu dira, berdintasunaren arloan esku hartzeko zutabe handiak biltzen dituztenak: **emakumeen ahalduntzea**, **ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea** eta **emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak**.

Apustua, une honetan, zera da, berdintasunerako eskubide hori lege-testuetan formalki aitortua ez ezik, praktikan benetan aplikatua izatea bermatzea, eta hori da, hain zuzen ere, **Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen xedea**. Lege horrek mekanismo eta neurri zehatz batzuk planteatzen ditu, euskal herri-administrazioek eragin handiagoko politikak eta jarduketak abiarazi ditzaten lortzeko, halako moldez non emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren fenomenoa -egiturazkoa eta unibertsala- gizartetik desagerraraz dadin.

Gaur egun, 4/2005 Legea eguneratzeko Lege Proiektua Gasteizko Parlamentuaren esku dago, eztabaidatzeko eta ekarpenak biltzeko. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista Erauzteko**

2. Emakume eta gizonen berdintasunerako araudi-markoa

Lege Proiektua indarrean jartzeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan administrazioek dituzten eginkizunak gehitzea ekarriko du, baita emakumeen aurkako indarkeria matxistari osotasunean ekitea ere.

Lurralde-mailara etorrita, kontuan hartzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu berri duen **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana** (2020-2023). EAEko Planaren egitura jarraitzen du, baina, izaera propioa du.

Norabide horretan, Oñatiko Udalak I. Plana diseinatu zuen 2013an eta ordutik hona garatzeko lanetan aritu da. Hortaz, **ibilbide bat egina** du emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan, azken urteetan egonkortu dena. Orain, bigarren Plan honekin **hurrengo sei urteetarako berdintasun politiken oinarriak** finkatu nahi ditu Udalak, berdintasunaren ikuspegitik lana nondik nora egin nahi duten ardaztuz.

3. Planaren nondik norakoak

3. Planaren nondik norakoak

3.1. Kokapena

Planaren nondik norakoen inguruan sakontzen hasi aurretik, ezinbestekoa izango da azken lau urteetan egindako lanaren azterketatik ateratako ondorioak aztertzea, modu honetara beharrak zein diren jakin eta Planean planteatzen diren ekintzen zergatia ulertzeko. Hauek dira Oñatin berdintasunaren alorrean identifikatu diren **erronka nagusiak**:

- Udalean **berdintasunerako politikak** garatzeko baldintzak hobetzea, besteak beste, udal-langileak trebatuz; eta zeharlerrotasunaren ildotik sail batzuetan jadanik egiten ari den lana hedatuz, eta sistematizatuz.
- **Gizarte-antolaketa erantzukidean sakontzea**, besteak beste, zaintza-lanak ikusaraziz eta zaintza-lanen demokratizaziorako lan eginez.
    - Zaintza lanetan, eta nagusiki ezkutuko ekonomian, ari diren emakumeen bizi-baldintzak edo egoera hobetzeko egitasmo konkretuak martxan jartzea.
- **Emakumeen ahalduntzean egindako lanari jarraipena ematea, eta Emakumeen Etxea egitasmoa garatu eta edukiz hornitzea.** Horrekin batera, emakume gehiago eta anitzagoengana heltzeko lan egiten jarraitu beharko du Udalak.
- **Indarkeria matxista kasuen kudeaketari lotuta, protokoloan inplikatutako eragile eta erakunde guztien arteko koordinazio eta elkarlana fintzeko lan egitea.**

3. Planaren nondik norakoak

3.2. Planaren printzipio gidariak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak berdintasunaren printzipioa eta euskal botere publikoen jarduna arautu behar duten printzipio orokorrak jasotzen ditu. Oñatiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak horietako batzuetan sakontzea proposatzen du, proposatutako esku-hartzeak gidatzeko estrategikoak direlako, eta beste batzuk gehitzen ditu. Jarraian, Oñatiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren printzipio gidariak deskribatzen dira:

- **Paradigma feminista**: Feminismoak gidatzen du Berdintasunerako II. Plana, pentsamendu feministako lerro eta dimentsio anitzak barne. Teoria eta mugimendu feminista eraldaketa sozialerako ekarpen handia egiten ari da une historiko-politiko honetan. Agenda feminista aintzat hartzean datza.

- **Aukera- berdintasuna**: Emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak, era berean baliatzen dituztela bermatu beharko da. Eta aukera-berdintasuna bermatu behar da, alde batetik, boterea, baliabideak eta onurak eskuratzeko abiapuntu edo hasierako baldintzetan, eta, bestetik, horiek guztiak baliatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzetan. Gobernantza-ereduak bermatu beharko lukeen printzipioa da.

- **Intersekzionalitatea**: Desberdintasunei heltzeko ikuspegi gisa, kontuan hartzen du generoa beste diskriminazio faktoreekin (arraza, klase soziala, desgaitasun maila, adina, hizkuntza, orientazio sexuala, identitate sexuala, familia eredua eta inguruabar pertsonalak eta sozialak) duen aldibereko erlazioa. Estrategia gisa ulertuta, diskriminazioaren oinarriak lotzen ditu diskriminazio horiek elikatzen dituen gizarte, ekonomia, politika eta lege-inguruarekin eta presio eta pribilegio bizipenak egituratzen dituenarekin.

- **Genero-ikuspegia**: Analisi eta tresna metodologiko gisa, mendekotasun patriarkarrean oinarritutako genero desberdintasunak agerian jartzeko baliatu da. Alegia, emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda

3. Planaren nondik norakoak

eraiki nahi den honetan, agenda horrek sistematikoki izan du kontuan gizonek eta emakumeek dituzten behar eta interes ezberdinak.

- **Emakumeen ahalduntzea**: Planaren ardatzetako bat izateaz gain, agenda osoa gidatzen duen printzipioa ere bada, emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua den heinean. Eta modu integralean hartu behar da aintzat, ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa.

- **Emakume-elkarteek, mugimendu feministak, zein eragile ekonomiko eta sozialek ere politiken garapenean parte hartzea**.

- **Desberdintasunak murriztea:** Printzipio hau aukera-berdintasunaren eskutik badoa ere, gizarteko esparru eta sektore guztietan generoagatik edo bestelako zapalkuntzengatik eratortzen diren desberdintasunak aintzat hartu eta horiek murrizteko politika aktiboak inplementatzea ekarriko du.

- **Giza garapen iraunkorra**. Agenda 2030: Giza garapen osoak, jasangarria izan dadin eta egiturako aldaketak bultza ditzan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatu behar ditu gizarte, ekonomia eta ingurumen politiketan.

- **Politika gardena izatea eta herritarrei kontuak ematea**, esku-hartze publikoaren bidez berdintasunari nola laguntzen zaion jakinarazteko.

3. Planaren nondik norakoak

3.3. Planaren bermeak

Planaren garapena bermatzeko ezinbesteko konpromisoak jaso ditugu jarraian. Berme hauen betetze-maila zenbait adierazleren bitartez neurtuko dugu Planak irauten duen epealdian, alegia, konpromiso neurgarriak izango dira eta hauen betetze-mailak zerikusi zuzena izango du Planaren arrakastarekin.

- **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso politikoa**. Udal gisa genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartu (konpromisoa onartu Udalbatzan), horretarako beharrezko bitartekoak bideratu eta koordinazio-egiturak onartuz.
- **Beharrezkoak diren baliabideak** (aurrekontua, giza-baliabideak, baliabide teknikoak) berdintasuneko politika publikoen esku jartzea. Berdintasun politikak garatzeko beharrezko aurrekontua bermatzea. Berdintasun politikak garatzeko beharrezko bitartekoak (giza-baliabideak barne) bermatzea, pertsona horien lan-baldintzak zainduz.
- **Planean inplikatutako erakundeek eta sailek erantzunkidetasuna izatea**. Berdintasunerako gobernantzaren ardatzean jasotako ekintzek norabide horretan eragiteko bokazioa dute. Berdintasuna sustatzeko sail guztien erantzukidetasuna lortzea prozesu bat da: lan egiteko moduak aldatzea eskatzen du (elkarlanean) eta norberaren lana ulertzeko moduak ere aldatzea (orain arte "besteen" gaitzat hartu izan ditugunak geure eginez...). Berme hau ezinbesteko baldintza da genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko eta, aldi berean, erronka bat ere bada.

3. Planaren nondik norakoak

3.4.Planaren indarraldia

Oñatiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Planak 6 urteko indarraldia izango du. 2021ean hasi eta 2026an bukatzeko.

Planak izan nahi duen irismena eta jasotzen dituen aldaketak gauzatzeko epealdi zabala beharko du.

Udalaren tenpusak hobeto enkajatuko du izan ere legegintzaldi aldaketa 2023an izango da eta tarteko ebaluazioa eginda aukera emango du doikuntzak egiteko eta neurrien artean lehentasunak gobernu programarekin lerratzeko.

3. Planaren nondik norakoak

3.5.Planaren esku-hartze ardatzak

Berdintasunerako II. Planean bi ardatzek izango dute izaera estrategikoa eta Planaren osotasunean eragiteko helburua: Berdintasunerako Gobernantzak eta Zaintza-lanen ekonomia feministak.

Horiez gain, eta orain arte egindako bidearekin koherentzian eta Emakunderen Berdintasunerako VII. Planarekin lerratuz, beste hiru ardatz definitu ditugu: Emakumeen Ahalduntzea, Gizarte- eta ekonomia-eraldatzailea eta Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.



Banan-banan aletuko ditugu:

Berdintasunerako Gobernantza

Oñatiko Udalak bide bat egin du berdintasun politiken inplementazioan baina aurrerapauso kualitatiboa emateko momentua da, testuinguru politikoak (Berdintasun lege proiektu berria) zein sozialak (feminismoaren bultzada) horretarako bide ematen duten heinean. Datozen urteetan berdintasuna ardatz

3. Planaren nondik norakoak

izango duen Gobernantzaren aldeko estrategia lehenetsiz, udal barnean zein udalerrian, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko estrategian urrats sendoak ematen jarraitzeko baldintzak areagotuko dira.

Genero-ikuspegia administrazioan txertatzeak, berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzen laguntzen du. Izan ere, esku-hartze publikoaren eguneroko jardunean genero-ikuspegia integratzen badugu, emakume eta gizonen egoera, baldintza eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea lortuko dugu, batzuen eta besteen abiapuntuak kontuan hartuz.

Berdintasunaren aldeko gobernantzak edo genero-zeharlerrotasuna aplikatzeak ardura partekatua inplikatzen du, hots, berdintasuna bultzatzea Berdintasun sailaren ardura ez ezik, sail guztien ardura bilakatzea. Beti ere, Berdintasun Sailaren eskutik eta horretarako, berau baliabide tekniko eta ekonomiko nahikoekin hornituta.

Udaleko gobernantzan genero-ikuspegia txertatzeko, udal-langileak berdintasunean trebatu behar dute, genero-arrakala nagusiak ezagutu eta horietan esku-hartzeko bitartekoen ezagutzatik programak diseinatu ahal izateko.

Planaren garapenerako konpromiso politikoa, baliabide nahikoa eta erantzunkidetasuna bermatzea berebiziko garrantzia izango du berdintasun parametroetan oinarritutako Gobernantza eredua inplementatzeko.

Horrez gain, gardentasunaren eta kontu emate publikoaren ikuspegitik, berdintasun-politikak ebaluatzea ezinbestekoa izango da, eta horretarako baldintzak sortu beharko dira.

“Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxista desagerrarazteko” lege proiektua onartzen denean, bertan jasotakoak aintzat hartu beharko dira.

Horrek guztiak, Oñatiko Udalak berdintasunaren alde hartutako konpromisoa indartzeaz gain, bere esku-hartze publikoa bidezkoagoa bilakatuko du.

3. Planaren nondik norakoak

Zaintza-lanen ekonomia feministaren

Ekonomia feministak bizitza erdigunean jartzea proposatzen du, jasangarria izan dadin iraunkortasuna, bizi-kalitateari eta justizia- eta ekitate-mailari dagokienez, herritar guztientzat. Zaintza-lanen ikusgarritasunean eta balioan sakondu nahi da, bai eta zaintza-lanekiko erantzunkidetasuna bultzatzean ere.

Pertsonak eta bizitzak zaintzeko beharrak betetzeko egiten diren jarduerak jotzen ditugu zaintza-lantzat. Nagusiki, emakumeek betetzen dituzte bi eremuetan: etxean musutruk eta eremu profesionalean, gutxi ordainduta eta lan-baldintza prekarioetan. Ezinbestekoak diren lan horiek emakumeen gain geratzen dira nagusiki eta emakumeen artean modu desorekatuan banatzen dira, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera.

Zaintzen ardura soziala kolektibizatzeko bideak hausnartu eta abiatu beharra agerian geratu da azken urteetan.

Oñatin ere zaintza-lanen erantzunkidetasuna sustatzeko egiturazko arazoen aurrean egiten dugu topo, izan ere, zaintza-lanen ardura profesionalizatuak, zein ez-profesionalizatuak emakumeen gain jarraitzen du. Horrek nolabait gurpil-zoro bat elikatzen du, zeinetan emakumeen prekarizazioak etenik ez duen. Horrek, Oñatin bizi diren emakumeen arteko arrakala handitzen du, izan ere, batzuen pribilegioak, besteen prekarizazioa eragiten baitu.

Oñatiko Udalak zaintza eta bizitza jasangarria erdigunean jartzen duen eredu ekonomiko eta sozialeranzko aldaketa sustatzeko agente aktiboa izan nahi du. Etxeetan zein etxeetatik kanpo egiten diren etxeko lanak eta zaintza-jarduera sozialki eta ekonomikoki aitortzeko, hala zaintza eta bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzen dituen ekonomia-eta gizarte-ereduetara eraldatzeko.

Pandemiaren eta honen ondorengo eszenatokian, harremanak eta parte-hartzeko lankidetzarako bideak ezartzea emakume talde eta talde feministekin. Ikuspegi intersekzionala aintzat harturik.

3. Planaren nondik norakoak

Emakumeen ahalduntzea

Emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarrituko den gizartea eraikitzeko emakumeen ahalduntzean eragitea ezinbestekoa bilakatzen da, euren parte-hartzea bultzatuz, eta emakumeak, historia, politika, ekonomia eta kulturako objektu izateari utzi eta beraien bizitzako subjektu aktibo bihurtuz.

Esku-hartze ardatz hau, Agenda 2030, gizarte-eredu jasangarriagoa izateko helburu estrategikoekin lerrokatuko da, izan ere, emakumeen ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gizartean egin behar den eraldaketa sozialerako.

Eremu honetan azken urteetan urrats nabarmenak eman badira ere, egindakoa finkatu eta egonkortzeko erronka izango dugu datozen urteetan.

Intersekzionalitatea ardatz hartuta, erronka izango da, Oñatiko aniztasuna aintzat hartuta lan egitea. Bide horretan, eskema honi jarraituko diogu: emakumeen eta gizonen desberdinkeria-egoeren kontzientzia hartu (jabetu), emakume bezala gaitasunak landu (ahaldundu) eta boterea hartuz egoera hori aldatzeko eragiteko ahalmena eduki (boteretu).

Ekonomia- eta gizarte-eraldatzailea

Gizarte-eredu androzentriko eta matxista batetik berdintasunezko gizarte batera igarotzeko, beharrezkoa da sexu-hierarkia eta genero-desberdinkeriak gainditzea, bestelako balio sozial batzuk indartzea eta botere-eredu berriak eraikitzea. Sistema bidegabe eta desorekatu honi erantzungo dion eraldaketa, gizarte aurrerakoi eta jasangarriago baten aldeko apustua izan beharko litzateke.

Herriko eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzea izango da, guztion eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkor eta berdinzaleago bat eraikitzeko bidea.

3. Planaren nondik norakoak

Lan-merkatuan argi islatzen da sexuaren araberako egiturazko desberdinkeria, horrenbestez, kontuan hartu behar da enpleguaren arloko politika publikoak diseinatzeko eta horien eragina ebaluatzeko unean. Arreta berezia jarriz, enplegua bilatzeari eta ekintzailetzari laguntzeko lan-merkatuan dauden genero-joerak aztertzeari, emakume kolektibo zaurgarrienei arreta berezia eskainiz. Alegia, emakumeen behar berehalakoei (behar praktikoak) eta dituzten epe ertain-luzeko interesei erantzun integralak eskaini ahal izateko. Zentzu horretan, emakumeen oinarrizko beharrak asetzea ezinbestekoa izango da, gainerako ardatzetan urratsak ematen jarraitzeko.

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren adierazpen larrienetakoa da indarkeria matxista. Ez da indarkeria erabiltzen duten gizon batzuen arazo indibiduala, baizik eta arazo estruktural eta sistemikoa da, bizitzako arlo guztiei eragiten diena, eta berau sostengatzen duen matxismoa desagerraraztea eskatzen duena. Horretarako, konponbidea berdintasuna orokortzetik etorriko da, gure gizartearen balio eta helburu gisa.

Emakumeen eta gizonen arteko botere-desorekaren adierazpen larrienetakoa izanik, Oñatiko Udalaren lehentasuna izango da batetik, prebentziorako politikak eta programak inplementatzen jarraitzea eta bestetik, indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta haien seme-alabei arreta integrala ematea, hala nola, erreparazioa eta oneratzea bermatzea.

Prebentzioaren eremuan aurrerapauso nabarmenak eman ditu Oñatiko Udalak azken 8 urteetan. Ekimen puntualak zirenak, prebentziorako sentsibilizazio-estrategia baten baitan kokatzeko gai izan da eta bide hori mugimendu feministarekin elkarlanean egiten jakin du.

Arretarik dagokionez, barne-mailan indarkeria kasuen aurrean jarduteko prozedurak protokolarizatu ditu azken urteetan eta bide horretan, kudeaketan inplikatutako agente guztien arteko sinergiak eta elkarlana fintzea izango da

3. Planaren nondik norakoak

datozen urteetako erronka, udal-mailakoak zein udalaz gaindikoak izan. Hortaz, arreta integrala bermatzeko, koordinaziorako mekanismoen etengabeko hobekuntza bermatuko da.

3. Planaren nondik norakoak

3.6.Planaren helburu estrategikoak

Oñatiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak, **5 ardatz eta 13 helburu estrategiko** barnebiltzen ditu.

Gobernantzaren ardatzean berdintasunerako konpromiso politikoa eta teknikoa finkatu nahi da, genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko eta, genero-ikuspegia botere publikoaren politika eta ekintza guztietan txertatzeko printzipioa gauzatu ahal izateko, politika horien diseinutik hasi eta ebaluaziora arte. Gobernantza eredua egonkortzeko, sistematizazioa eta koordinaziorako eta elkarrekintzarako espazioak beharko dira. Esku-hartze integral horrek, Oñatiko Udalak berdintasunaren alde hartutako konpromisoa indartzeaz gain, bere esku-hartze publikoa bidezkoagoa bilakatuko du.

1. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA
Helburu estrategikoak
1.1. Udal-politiketan genero-ikuspegia txertatzeko ezagutza bereganatzea
1.2. Lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatzea
1.3.Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana bermatzea
1.4. Udalaren lan arloko barne-mailako politikan berdintasun-ikuspegia txertatzea

Oñatiko Udalak zaintza eta bizitza jasangarriak erdigunean jartzen dituen eredu ekonomiko eta soziala sustatu nahi ditu, eta aldaketa horietan agente aktiboa izan nahi du. Helburu horrekin hausnarketa sustatuko du zaintza-eredua birpentsatzeko. Etxeetan, zein, etxeetatik kanpo egiten diren etxeko lanak eta zaintza-jarduerak sozialki eta ekonomikoki aitortzea lehen urratsa izango da, ondoren, zaintza eta bizitzaren jasangaritasuna erdigunean jartzen dituen ekonomia- eta gizarte-ereduetara eraldatzeko. Bestalde, pandemiaren eta honen ondorengo eszenatokian, harremanak eta parte-hartzeko lankidetzarako bideak ezarri beharko dira emakume talde eta talde feministekin, beti ere, ikuspegi intersekzionala aintzat harturik.

3. Planaren nondik norakoak

2. ZAINTZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA
Helburu estrategikoak
2.1. Zaintza-eredua birpentsatzea eta zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz igarotzeko baldintzak sortzea
2.2. Zaintzaren erantzunkidetasuna
2.3. Zaintza lanetan diharduten emakumeen bizi- eta lan-baldintzak duintzeko programak sustatzea

Ahalduntzearen esparruan azken urteetan urrats nabarmenak eman badira ere, **egindakoa finkatu eta egonkortzeko erronka izango du datozen urteetan Oñatiko Udalak**. Intersekzionalitatea ardatz hartuta, erronka izango da Oñatiko aniztasuna aintzat hartuta lan egitea. Bide horretan, eskema honi jarraituko diogu: emakumeen eta gizonen desberdinkeraia egoeren kontzientzia hartu (jabetu), emakume bezala gaitasunak landu (ahaldundu) eta boterea hartuz egoera hori aldatzeko eragiteko ahalmena eduki (boteretu).

3. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
Helburu estrategikoak
3.1. Ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa
3.2. Emakumeen partaidetza soziopolitikoa eta eragina sustatzea

3. Planaren nondik norakoak

Herriko eragile sozial, politiko eta ekonomiko guzitak inplikatzea izango da guztion eskubideak bermatzeko eta eredu sozial jasangarri eta berdinzaleago bat eraikitzeko bidea. Lan-merkatuak argi islatzen du sexuaren araberako egiturazko desberdinkeria, eta honenbestez, kontuan hartu behar da enpleguaren arloko politika publikoak diseinatzeko eta horien eragina ebaluatzeko unean. Arreta berezia jarriko da enplegua bilatzeari eta ekintzailetzari laguntzeko lan-merkatuan dauden genero-joerak antzeman eta gainditzeari, emakume kolektibo zaurgarrienei arreta berezia eskainiz, emakumeen behar berehalakoei (behar praktikoak) eta dituzten epe-ertain, -luzeko interesei erantzun integralak eskaini ahal izateko.

4. EKONOMIA- ETA GIZARTE-ERALDATZAILEA
Helburu estrategikoak
4.1. Berdintasuna, **gizartea eta ekonomia eraldatzeko balioa**
4.2. Emakumeen **autonomia ekonomikoa**

IIndarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzeko orain arteko esku-hartzeak finkatu eta sistematizatuko ditu Oñatiko Udalak. Prebentzioaren arloan arreta jarriko da, hori baita, indarkeria matxista ez birproduzitzeko estrategia eraginkorrena, hala nola jada indarkeria matxista jasan dutenen erreparazioa bermatzea. Emakumea subjektu aktiboa izango duen arreta integrala bermatzeko, bide eman beharko zaie gogoetari eta praktika eraldatzaileak diseinatzeari.

5. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK
Helburu estrategikoak
5.1. Indarkeria matxistaren **prebentzioa**
5.2.Indarkeria matxista jasan duten emakumeen **arreta integrala** bermatzea

3. Planaren nondik norakoak

3.7. Helburu operatiboak

Helburuak lortzeko proposatutako neurriek izaera jarraitua edo puntuala daukate; hau da, neurri batzuek urtez urtekako garapena izango dute, euren betetze-maila pixkanaka handitzen joango delarik. Beste batzuk, aldiz, puntualak izango dira eta beraz, urte konkretu batean gauzatuko dira.

Hurrengo taulan Planaren ardatzak eta hauetako bakoitzarekin lotuta zehaztutako helburu estrategikoak eta operatiboak azaltzen dira, ikuspegi orokor bat izateko.

1. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA	
Helburu estrategikoak	**Helburu operatiboak**
1.1. UDAL-POLITIKETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO EZAGUTZA BEREGANATZEA	1.1.1.Udal-jarduera guztian genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza areagotzea udal-teknikari eta langileen artean bai eta udaleko zerbitzuen ardura duten eta azpi kontratatutako zerbitzuetako langileen kasuan ere.
	1.1.2.Udal-ordezkarien sentsibilizazioa eta ezagutza areagotzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.
1.2. LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA	1.2.1. Udaleko inprimaki, datu-base eta erregistroetan sexuaren aldagaia txertatzea, hots, datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea eta genero-ikuspegitik aztertzea.
	1.2.2.Komunikazioan berdintasuna txertatzea.
	1.2.3.Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako jardueretan.
	1.2.4.Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea. 2022-2026
	1.2.5.Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.(Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioaren azterketak) 2023-2026
	1.2.6.Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea. 2025-2026
1.3.BERDINTASUNERAKO	1.3.1.Udaleko sailen arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko, egiturak, bitartekoak, formulak sortzea eta

3. Planaren nondik norakoak

1. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA	
Helburu estrategikoak	**Helburu operatiboak**
KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA BERMATZEA	elikatzea
	1.3.2. Erakunde arteko koordinazio eta elkarlanerako guneekin hartu-emana sustatzea
1.4. UDALAREN LAN ARLOKO BARNE-MAILAKO POLITIKAN BERDINTASUN IKUSPEGIA TXERTATZEA	1.4.1.Udaleko lan baldintzak hobetzea
	1.4.2. Enplegu publikorako hautaketa eta sustapen prozesuetan berdintasun irizpidea txertatzea
	1.4.3.Udalean bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna erraztea
	1.4.4. Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta aurre egiteko mekanismoak errebisatzea

2. ZAINTZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA	
Helburu estrategikoak	**Helburu operatiboak**
2.1. ZAINTZA-EREDUA BIRPENTSATZEA ETA ZAINTZA-EREDU JUSTU ETA ERANTZUKIDE BATERANTZ TRANTSITATZEKO BALDINTZAK SORTZEA	2.1.1. Zaintza-lanen garrantziaz jabetu eta eredu justuago bateranzko trantsizioa egiteko baldintza sozialak sortzea
	2.1.2.Zaintza-beharren eta zaintza-baliabideen inguruko azterketa egitea.
	2.1.3. Zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz trantsitatzeko urratsak ematen hastea, gogoeta eta praktika eraldatzaileak uztartuz.
2.2. ZAINTZAREN ERANTZUNKIDETASUNA	2.1.1. Zaintza-lanen garrantziaz jabetu eta eredu justuago bateranzko trantsizioa egiteko baldintza sozialak sortzea
	2.2.2. Udalerriko enpresetan kontziliaziorako neurrietan erantzunkidetasuna sustatzea eta zaintzarekiko erantzukideak izateko testuingurua sortzea
	2.2.3. Erakunde publikoen eskaintza birpentsatu eta hobetzea

3. Planaren nondik norakoak

2. ZAINTZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA	
Helburu estrategikoak	**Helburu operatiboak**
2.3. ZAINTZA LANETAN DIARDUTEN EMAKUMEEN BIZI- ETA LAN-BALDINTZAK DUINTZEKO PROGRAMAK SUSTATZEA	2.3.1. Zaintzaile ez profesionalen bizi-baldintzak hobetzeko programak garatzea
	2.3.2. Zaintzaile profesionalen lan-baldintzak hobetzea
	2.3.3. Udalak bere eskumenekoak diren zerbitzuen kontratazioan lan-baldintzak hobetzeko neurriak hartzea.

3. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	
Helburu estrategikoak	**Helburu operatiboak**
3.1. AHALDUNTZE PERTSONAL, KOLEKTIBO, SOZIAL ETA POLITIKOA	3.1.1.Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikorako espazioak garatzea ikuspegi intersekzionala ardatz
3.2. EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA SUSTATZEA	3.2.1. Mugimendu feministaren eta emakumeen antolakuntza-gaitasunak eta eragin politikoa indartzeko esku-hartzeak martxan jartzea
	3.2.2. Gizarte- eta komunitate-sarea indartzea genero-ikuspegitik
	3.2.3. Udal politika publikoetan eragiteko bideetan sakontzea

4. EKONOMIA- ETA GIZARTE-ERALDATZAILEA	
Helburu estrategikoak	**Helburu operatiboak**
4.1. BERDINTASUNA, GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BALIOA	4.1.1. Diskurtso feministaherritarren artean zabaltzeko ekimenak garatzea, berdintasunaren aldeko gizarte eredu bateranzko oinarri gisa
	4.1.2. Ekonomia sozial eraldatzailearen aldeko ekimenak babestea
	4.1.3. Oñati herri-hezkidetzailea egitasmoa sendotzea

3. Planaren nondik norakoak

4. EKONOMIA- ETA GIZARTE-ERALDATZAILEA	
Helburu estrategikoak	**Helburu operatiboak**
4.2. EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA	4.2.1. Emakumeen lan-baldintza duinak sustatzea
	4.2.2. Pobreziaren feminizazioa murrizten laguntzeko programak garatzea

5. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	
Helburu estrategikoak	**Helburu operatiboak**
5.1. INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA	5.1.1.Indarkeria matxistaren prebentziorako bitartekoak eta kanpainak bideratzea.
	5.1.2. Baliabideen inguruko ezagutza handitzea
5.2.INDARKERIA MATXISTA JASAN DUTEN EMAKUMEEN ARRETA INTEGRALA BERMATZEA	5.2.1. Indarkeria matxista jasan duten emakumeen lehenerate integrala (juridiko, ekonomikoa, osasun-arlokoa...) bermatzea, ahalduntzearen ikuspegi batetik
	5.2.2. Ahalduntze prozesu kolektiboak bideratzea
	5.2.3. Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta integralerako instituzio arteko koordinazioa hobetzea
	5.2.4. Indarkeria matxistaren prebentzio, detekzio, arreta eta erreparazio integralerako, herriko eragileen inplikazioa eta jarrera aktiboa sustatzea

3. Planaren nondik norakoak

3.8. Ekintza-plana

Jarraian, **Oñatiko Berdintasunerako II. Plana garatzeko proposatutako neurriak** jaso ditugu; gainera, horiek **zer urtetan burutzea** aurreikusten dugun, **arduradunak** nortzuk izango diren neurrien jarraipena egiteko adierazleak jaso ditugu.

Ekintza-plana Exceleko tresna batean jaso dugu, lanerako tresna erabilgarria izan dadin eta ez zerbait estankoa. Modu honetara, urtez urteko segimendua egitea erraztuko digu tresnak, baita urteko kudeaketa-plana modu sinple batean eskuratzea ere.

1. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA									
1.1.Udal-politiketan genero-ikuspegia txertatzeko ezagutza bereganatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
1.1.1.Udal-jarduera guztian genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza areagotzea udal-teknikari eta langileen artean bai eta udaleko zerbitzuen ardura duten eta azpi kontratatutako zerbitzuetako langileen kasuan ere.	Genero-zeharlerrotasunaren inguruko trebakuntza orokorra eskaini Sail guztiei.	X						Berdintasun Saila Antolaketa eta Giza Baliabideak	Trebakuntzan parte hartu duten Sailak. Sail bakoitzeko teknikari kopurua. % eta sexua Trebakuntza ordu-kopurua
	Landuko diren gaien araberako trebakuntza zehatzagoak: berdintasuneko klausulak (eta klausula sozialak), Genero Eraginaren araberako Aurretiazko Ebaluazioa, genero-ikuspegidun aurrekontuak... sail guztientzako.		X	X	X	X	X	Berdintasun Saila Antolaketa eta Giza Baliabideak	Trebakuntza bakoitzean parte hartu duten Sailak Sail bakoitzeko parte-hartzaile kopurua, % eta sexua Trebakuntza ordu-kopurua
	Jarduera-eremu bakoitzari lotutako berariazko trebakuntza eskaini, jarduera-eremu bakoitzean genero-ikuspegia txertatzeak zer esan nahi duen zehatzago lantzeko.	X	X	X				Antolaketa eta Giza Baliabideak	Trebakuntza bakoitzean parte hartu duten Sailak Sail bakoitzeko parte-hartzaile kopurua, % eta sexua Trebakuntza ordu-kopurua
	Departamendu bakoitzean maila formatiboan hautematen dituzten gabeziak jaso eta berdintasun departamendura bideratzeko sistemak ezarri		X	X	X	X	X	Berdintasun Saila	Hautemandako gabezien bidareketzeko sistemak ezarri dira bai/ez
	Udalaz gaindiko erakundeetatik eskaintzen den formazioaren gaineko hedapen periodikoa (orokorra eta pertsonalizatua)	X	X	X	X	X	X	Antolaketa eta Giza Baliabideak	Trebakuntza bakoitzean parte hartu duten Sailak Sail bakoitzeko parte-hartzaile kopurua, % eta sexua Trebakuntza ordu-kopurua

1. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA									
1.1.Udal-politiketan genero-ikuspegia txertatzeko ezagutza bereganatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
	Berdintasun departamenduaz gain antolatzen diren formazio ekintzetan genero irizpidea txertatzea				X	X	X	Antolaketa eta Giza Baliabideak	Genero-irizpidea txetatuta duten formazio ekintzen kopurua sailka
1.1.2.Udal-ordezkarien sentsibilizazioa eta ezagutza areagotzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.	Ordezkari politikoak berdintasun gaietan trebatzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea agintaldi bakoitzean.	X			X			Berdintasun Saila	Trebakuntzan parte hartu duten pertsona kopurua eta sexua Trebakuntza ordu-kopurua
	Jarduera-eremu bakoitzari lotutako berariazko trebakuntza eskaintzea, jarduera-eremu bakoitzean genero-ikuspegia txertatzeak zer esan nahi duen zehatzago lantzeko.		X			X		Berdintasun Saila	Trebakuntzan parte hartu duten pertsona kopurua eta sexua Trebakuntza ordu-kopurua

1.2. Lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
1.2.1. Udaleko inprimaki, datu-base eta erregistroetan sexuaren aldagaia txertatzea, hots, datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea eta genero-ikuspegitik aztertzea.	Datu-bilketak sexuaren arabera egin ahal izateko sistemak egokitu: datu-bilketak egiteko sistemetan sexu-aldagaia jasota ez dutenak identifikatu; sexu-aldagaia txertatzeko teknikoki dauden aukerak/oztopoak aztertu, eta nola bideratuko den erabaki sailekin elkarlanean.		X	X				Antolaketa eta Giza Baliabideak Idazkaritza saila	Sexu-aldagaia txertatu den inprimaki portzentajea
	Biltzen diren datuak progresiboki genero-ikuspegitik aztertzea. Gradualki adierazleak identifikatzea, egokitzea eta horien ebolutzioaren azterketa egitea.		X	X				Berdintasun Saila	Adierazleak definitu diren sail kopurua Adierazleen bilakaera aztertu den sail kopurua

1.2. Lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
1.2.2. Udal- komunikazioan berdintasuna txertatzea.	Udal- komunikazio berdinzalerako eta integratzailerako irizpideak landu, adostu eta aplikatu. jarraipen eta ebaluazioa		X	X				Berdintasun Saila	Irizpideak zehaztu dira bai/ez Aplikatu dira bai/ ez, jaraipena egin da bai /ez
	Landutako irizpideen berri eman udaleko sail eta langile guztiek irizpide bateratuak erabili ditzaten.		X	X				Berdintasun Saila	Irizpideen ezagutza maila saila (%)
1.2.3.Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako jardueretan.	Sailekin elkarlanean identifikatu datozen urteetarako aurreikusi dituzten egitasmoak eta genero-ikuspegia txertatzea garrantzitsuak direnak identifikatu prozesua elkarlanean egiteko.	X			X			Sail bakoitza + Berdintasun Saila	Identifikatu diren egitasmo kopurua Inplikatutako sailak
	Sektoreka egiten diren diagnostikoetan emakumeen eta gizonen egoerak eta baldintzak aztertu ahal izateko adierazle zehatzak ezartzea *(berdintasun departamenduaren laguntzarekin, hala badagokio).*	X	X	X	X	X	X	Sail bakoitza + Berdintasun Saila	Diagnostikoen zein portzentajetan zehaztu diren genero-adierazleak sektoreka
	Sail bakoitzean egitasmoen ebaluaziorako adierazle zehatzak definitzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta.	X	X	X	X	X	X	Sail bakoitza + Berdintasun Saila	Ebaluaziorako adierazleak definitu diren sailak
	Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzea: Sariketa eta hautaketa-epaimahaietan, ekimenen dinamizazioan, aurkezpenetan, ekitaldi publikoetan, taularatzeetan, kale ekintzetan...	X	X	X	X	X	X	Alkatetza	Ordezkaritza orekatua bermatzeko irizpidea ezarri da: bai/ez
1.2.4.Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	Klasula sozialak oro har, eta zehazki berdintasun-klausulak txertatzeko prozedura bat landu eta aplikatu		X	X	X	X	X	Idazkaritza Saila Berdintasun Saila	Klausulak txertatu diren kontratu kopurua eta % Definizio prozesu horretan inplikatu diren sailak

1.2. Lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
1.2.5.Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.(Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioaren azterketak)	Udaleko ordenantza/araudi eta administrazio-ekintzetan Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioaren azterketak egiteko egitasmo pilotuak egin. Aurreikusitako araudi eta enplegu-deialdiak identifikatu eta pilotuak zeinetan egin zehaztu. 2022‹		X					Idazkaritza Saila Berdintasun Saila	Pilotajeak egingo diren sailak
	Egitasmo pilotuetatik ikasitakoa kontuan hartuta, GEAEak egiteko prozedura landu eta dagokion lekuetan onartu (behebehar gisa ezarri Udalean) 2023			X				Idazkaritza Saila Berdintasun Saila	Prozedura zehaztu da bai/ez Prozedura Plenoan onartu da bai/ez Plenoan izandako babes maila %
	GEAEak modu sistematikoan eta orokorrean egiten hasi. 2024.				X	X	X	Idazkaritza Saila Berdintasun Saila	GEAEak egin diren sail kopurua
1.2.6.Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatea.	Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko modu eta metodologia ezberdinak aztertzea eta Oñatirako eredua definitzea.					X	X	Kontu-hartzailetza Berdintasun Saila	Eredua definitu da bai/ez
	Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko proba pilotua diseinatu eta abian jarri. 2026						X	Kontu-hartzailetza Berdintasun Saila	Proba pilotua abian jarri da bai/ez

1.3. Sailarteko koordinaziorako estrategia eta formulak definitzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
1.3.1.Udaleko sailen arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko, egiturak, bitartekoak, formulak sortzea eta elikatzea	Sailarteko egitura definitu (egituraren osaera, funtzioak eta funtzionamendua) eta martxan jarri. Hasierako ezaugarriak baloratu eta beharrezko jotzen diren egokitzapenak egiten joan.		X					Alkatetza	Egitura sortu da bai/ez
	Sail arteko batzorde teknikoaz gain, unean uneko lanketak egiteko elkarlanerako lantaldeak eta dinamikak sortu		X	X	X	X	X	Alkatetza	Sortu diren lantalde/dinamika kopurua Egindako bilera kopurua Inplikatu diren sailak
	Berdintasun Batzordea: urtean behin egindako lanari segimendua egin eta hurrengo urteko bidea partekatzeko.	X	X	X	X	X	X	Alkatetza Berdintasun Saila	Bilera kopurua
1.3.2. Erakunde arteko koordinazio eta elkarlanerako guneekin hartuemana sustatzea	Berdintasuneko udalerriaz gaindiko sareetan parte hartzea, Berdintasun politiken garapena aberastu eta udalerriaz gaindiko estrategiak garatu ahal izateko.	X	X	X	X	X	X	Berdintasun Saila	Udalerriaz gaindiko sare/dinamika kopurua

1.4. Udalaren lan arloko barne-mailako politikan berdintasun ikuspegia txertatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
1.4.1.Udaleko lan baldintzetan parekidetasuna bermatzeko neurriak txertatzea	Udal-langileen nahiz azpikontratatuta dauden zerbitzuetako langileen egoera genero-ikuspegitik aztertu, eta identifikatutako alderdiak hobetzeko neurri zuzentzaileak martxan jartzea, langileen ordezkariekin elkarlanean.		X	X				Antolaketa eta Giza Baliabideak	Diagnostikoa egin da bai/ez Definitu diren neurri-kopurua Inplementatu direnen %
1.4.2. Enplegu publikorako	Berdintasunari buruzko edukiak txertatzea, formazioa aintzat	X	X	X	X	X	X	Antolaketa eta	Irizpideak txertatu dira bai/ez

1.4. Udalaren lan arloko barne-mailako politikan berdintasun ikuspegia txertatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
hautaketa eta sustapen prozesuetan berdintasun irizpidea txertatzea	hartzea, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko neurriak ezartzea, segregazio bertikala ekiditea...							Giza Baliabideak	Irizpideak txertatu diren prozesuen %
1.4.3.Udalean bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna erraztea	Pertsonal sailarekin bateragarritasun neurrien asebetetze-maila neurtzeko azterketa egitea			X				Antolaketa eta Giza Baliabideak Berdintasun Saila	Galdetegia egin da bai/ez Ondorioak atera dira bai/ez
	Langileen beharrei erantzuteko neurriak adostea eta ezartzea				X	X		Antolaketa eta Giza Baliabideak	Definitutako neurri kopurua Inplementatu direnen %
1.4.4. Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta aurre egiteko mekanismoak errebisatzea	Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta aurre egiteko protokoloa aztertu ostean, egokitu edota berria sortu, eta udal-langile, -teknikari eta ordezkari politikoei ezagutarazi.		X					Antolaketa eta Giza baliabideak Berdintasun Saila	Protokoloa errebisatu da: bai/ez Protokoloaren ezagutza maila %

2. BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA									
2.1. Zaintza-eredua birpentsatzea eta zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz trantsitatzeko baldintzak sortzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
2.1.1. Zaintza-lanen garrantziaz jabetu eta eredu justuago bateranzko trantsizioa egiteko baldintza sozialak sortzea	Sentsibilizazio-ekintzak, jardunaldiak, gaur egungo egoeraren inguruan nahiz egitasmo berritzaileen inguruan, kontzientzia hartu eta ikuspegia zabaltzeko.	X	X		X		X	Berdintasun Saila	Antolatutako sentsibilizazio-ekintza/jardunaldi kop. Antolatutako ekimenetako parte-hartzaileak sexuaren arabera (kop.)
2.1.2.Zaintza-beharren eta zaintza-baliabideen inguruko azterketa egitea.	Zaintza beharren eta zaintza-baliabideen inguruko udalerri mailako azterketa egin, ikuspegi intersekzionala aintzat hartuta.		X					Berdintasun Saila	Azterketa egin izana: bai/ez Azterketaren ondorio nagusiak
2.1.3. Zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz trantsitatzeko urratsak ematen hastea, gogoeta eta praktika eraldatzaileak uztartuz.	Diagnostikoak, inkestak, ikerketak, datuak eguneratu...Egoeraren inguruko irakurketak egin, sustatu eta zabaldu.			X	X	X	X	Berdintasun Saila	Egoeraren inguruko analisia egin izana: Bai/Ez
	Egindako azterketen ondorioetatik abiatuta, zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz trantsitatzeko formula berritzaile eta eraldatzaileak pentsatzea.			X				Berdintasun Saila	Zaintza-eredu jusut eta erantzunkide baterantz trantsitatzeko formula berritzaileak pentsatu izana: bai/Ez
	Zehaztutako egitasmo berritzaileak garatu, jarraipena eman eta ebaluatu.			X	X	X	X	Berdintasun Saila	Pentsatutako formula berritzaileen garapena %

2.2. Zaintzaren erantzunkidetasuna									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
2.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko banaketa justuagoak sustatzea, gizonak zuzenean interpelatuz	Oñatiko emakumeen eta gizonen denboraren erabileraren inguruko azterketa egin, eta ondorioak gizarteratu.				X			Berdintasun Saila	Denboraren erabileraren inguruko azterketa egin izana: bai/ez Ondorioak gizarteratu izana: bai/ez
	Zaintzaren azterketan oinarrituta, gizonen erantzukidetasuna sustatzeko esku-hartze ildoak diseinatu eta garatu.				X			Berdintasun Saila	Gizonen erantzukidetasuna sustatzeko esku-hartzeak diseinatu izana: bai/ ez Esku-hartzeen garatze maila %
2.2.2. Udalerriko enpresetan kontziliaziorako neurrietan erantzunkidetasuna sustatzea eta zaintzarekiko erantzukideak izateko testuingurua sortzea	Enpresen eremuko ekimen berritzaileak eta udalaz gaindiko egitasmoak ezagutu eta udalerriko enpresei ezagutarazi. Zaintzarekiko erantzukideak izango diren enpresak izateko testuingurua sortu.					X		Enplegu Saila Berdintasun Saila	Harremana egindako enpresa kop.
	Banakako harremanetarako bidea ireki, udaleko berdintasun arloa eta enpresen ekimenen artean, egon daitezkeen elkarlanerako bideak errazteko. Desberdinduz enpresa handien eta txiki-ertainen artean.					X		Enplegu Saila Berdintasun Saila	Harremana egindako enpresen artean elkarlana abiatu dutenen %
	Kontziliazio eta erantzunkidetasun neurriak aplikatu eta eredugarriak diren enpresei ikusgarritasuna eta errekonozimendua eskaintzeko bideak ireki					X	X	Enplegu Saila Berdintasun Saila	Enpresei ikusgarritasuna eta errekonozimendua eskaintzeko bideak ireki izana: bai/ez
	Enpresaren batekin (edo batzuekin) egitasmo pilotu bat.						X	Enplegu Saila Berdintasun Saila	Egitasmo pilotua abiatu izana: bai/ ez
2.2.3. Erakunde publikoen eskaintza birpentsatu eta hobetzea	Diagnostikoan oinarrituta, zuzenean edo zeharka zaintza lanetan eragina duten zerbitzuen eta laguntzen gaineko moldaketak egin, herriko zaintza beharretara egokitu daitezen.			X				Berdintasun Saila	Zerbitzu eta laguntzak herriko zaintza beharretara egokitu izana: bai/ez
	Azterketen emaitzak kontuan hartuta, ekimen berritzaileak pentsatu eta garatu, zaintza beharrei eremu publiko eta komunitariotik erantzuteko, genero-rolak irauliz.				X			Berdintasun Saila	Ekimen berritzaileak diseinatu izana: bai/ez Ekimen berritzaileen inplementazioa %

2.3. Zaintza lanetan diarduten emakumeen bizi- eta lan-baldintzak duintzeko programak sustatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
2.3.1. Zaintzaile ez profesionalen bizi-baldintzak hobetzeko programak garatzea	Herriko emakumezko zaintzaileak honakoak erabiltzera animatu: zaintzaile informalentzako atseden programak, arreta psikologikorako programak, prestakuntzakoak eta elkarri laguntzekoak, etab.				X	X	X	Ongizate Zerbitzuak	Sustatutako programa kop. Programetan parte hartu duten emakumezko zaintzaile kop.
	Erantzunkidetasunaren eta feminismotik egiten diren hausnarketen inguruko edukiak indartzea Eguneko Zentroetako eta Etxeko Laguntza Zerbitzuko erabiltzaileen familiei zuzendutako jardueretan, zaintza-lanen banaketa ekitatiboagoa sustatzeko.					X	X	Ongizate Zerbitzuak	Jardueretan erantzunkidetasun eta feminismoaren inguruko edukiak indartu izana; bai/ ez
2.3.2. Zaintzaile profesionalen lan-baldintzak hobetzea	Zaintzaile profesionalen lan-eskubideen eta kontratatzaileen betebeharren zabalkunde kanpainak laguntzea edo bultzatzea, arreta berezia jarriz emakume migratzaileen egoeraren gainean.		X		X		X	Ongizate Zerbitzuak Enplegua, Merkataritza eta Garapen ekonomikoa Saila	Kanpainak garatu izana: bai/ ez
	Lan eskubideen gaineko aholkularitza eta informazio zerbitzua eskaintzea.		X	X	X	X	X	Ongizate Zerbitzuak Enplegua, Merkataritza eta Garapen ekonomikoa Saila	Zerbitzua eskaini izana: bai/ez Zerbitzuak izan dituen erabiltzaileei buruzko datuak (sexua, jatorria, adina...)
	Udaletik zaintzaile profesionalen lan eskubideak bermatuko dituen gizarte ekimeneko egitasmoak sustatzea, bideratzea eta laguntzea.			X	X	X	X	Ongizate Zerbitzuak Enplegua, Merkataritza eta Garapen ekonomikoa Saila	Gizarte ekimeneko egitasmoak sustatu/bideratu/garatu dira: bai/ez
	Zaintza-lanak profesionalizatzeko prestakuntza ikastaroak, Lanbide Heziketako zentroetan eskaintzeko Udalak bitartekaritza egiten			X				Ongizate Zerbitzuak Enplegua, Merkataritza	Zaintza-lanak profesionalizatzeko prestakuntza-ikastaroen eskaintza

2.3. Zaintza lanetan diarduten emakumeen bizi- eta lan-baldintzak duintzeko programak sustatzea									
Helburu operatiboa	Ekintzak	2021	2022	2023	2024	2025	2026	Arduradunak	Adierazleak
	jarraitzea, eta lortu ezean eskariari erantzuteko moduko alternatibak eskaintzea.							eta Garapen ekonomikoa Saila	Alternatibak eskaini dira: bai/ez
	Internaren figura desagerrarazte aldera, sentsibilizazio ekintzak garatzea, eta zaintzaileen elkarteetatik eta mugimendu feministatik garatutako diskurtso feministaren hedatzea.	X		X		X		Ongizate Zerbitzuak	Sentsibilizazio ekintzak garatu izana: bai/ez
2.3.3. Udalak bere eskumenekoak diren zerbitzuen kontratazioan lan-baldintzak hobetzeko neurriak hartzea.	Etxez etxeko zaintza-zerbitzua eta bestelako zaintza-zerbitzuak kontratatzeko pleguetan lan-baldintza duinak bermatzeko neurriak ezartzea.		X	X	X	X	X	Ongizate Zerbitzuak	Pleguetan lan-baldintza duinak bermatzeko neurriak ezarri dira: bai/ez

3. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA									
3.1. Ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
3.1.1.Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikorako espazioak garatzea ikuspegi intersekzionala ardatz	Emakumeen etxea edo txokoaren egitasmoa gauzatu eta garatzea, horretarako herriko emakumeen adostasuna, eta herriko errealitatera egokitutako formulak bilatzea.	X	X	X	X	X	X	Berdintasun Saila	Emakumeen etxea/txokoa garatu izana: bai/ez
	Neska gazteen ahalduntzerako espazioa pentsatzea, gazteekin elkarlanean, eta herriko bestelako egitasmoen osasuna bermatuz.	X	X	X				Berdintasun Saila	Neska gazteen ahalduntzerako espazioa pentsatu izana: bai/ez Egitasmoan parte hartu duten neska gazte kop.
	Oñatiko emakume ezberdinen beharretara egokitutako ahalduntze programa diseinatzea, ibilbide eta formatu ezberdinak kontuan hartuta: jabetze eskola, eztabaida guneak, espazio egonkorren sustapea, elkarguneen sustapena...			X	X	X	X	Berdintasun Saila	Ahalduntzerako programa diseinatu izana: bai/ez Inplikatutako emakume kop. (aurretik parte hartzen zutenak, berriki inplikaturikoak)
	Adineko emakumeen ahalduntzerako espazioa pentsatzea, beraiekin elkarlanean, eta herriko bestelako egitasmoen osasuna bermatuz		X	X	X	X	X	Berdintasun Saila	Adineko emakumeen ahalduntzerako espazioa pentsatu izana: bai/ez Egitasmoan parte hartu duten emakume kopurua eta haien perfila (intersekzionalitate-maila neurtu)

3.2. Emakumeen partaidetza soziopolitikoa eta eragina sustatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**

3.2. Emakumeen partaidetza soziopolitikoa eta eragina sustatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
3.2.1. Mugimendu feministaren eta emakumeen antolakuntza-gaitasunak eta eragin politikoa indartzeko esku-hartzeak martxan jartzea, eta egun daudenak babestea	Mugimendu feministari, emakumeen elkarte-mugimenduari eta berdintasunaren aldeko konpromiso berezia duten elkarteei babesa ematea, gizarte-aldaketaren eragile gisa duen ikusgaitasunean eta aintzatespenean.		X	X	X	X	X	Berdintasun Saila	Babestu den elkarte kop.
	Laguntza ekonomikoa, materiala eta teknikoa ematea mugimendu feministari, emakumeen elkarte-mugimenduari eta berdintasunaren aldeko konpromiso berezia duten elkarteei, euren programa era autonomoan garatu ahal izateko.	X	X	X	X	X	X	Berdintasun Saila	Laguntza ekonomikoa, materiala eta teknikoa eman zaien elkarte kop. Laguntzaren zenbatekoa
	Mugimendu feministari, emakumeen elkarte-mugimenduari eta berdintasunaren aldeko konpromiso berezia duten elkarteekin entzute irekirako, dialogorako eta lankidetzarako bideak irekita mantentzea	X	X	X	X	X	X	Berdintasun Saila	Lankidetzan aritu izana: bai/ ez Lankidetzan aritutako eragile kopurua
3.2.2. Gizarte- eta komunitate-sarea indartzea genero-ikuspegitik	Adierazleak sartzea, sexuaren, parte-hartzearen eta erantzukizun mailaren arabera, elkartegintzaren udal fitxategian eskatzen den dokumentazioan.	X						Partaidetza Saila	Fitxategia osatzeko adierazleak txertatu izana: bai/ez
	Udalerriko elkartegintza sarearen azterketa egitea genero- eta intersekzionalitate-ikuspegitik		X					Partaidetza Saila	Artezkerta egin izana: bai/ez Azterketaren ondorio nagusiak
	Intersekzionalitatearen ikuspegidun genero arteko berdintasunaren printzipioak udalerriko elkartegintzaren funtzionamenduan eta antolamenduan sartzeko mekanismoak ezartzea.			X				Partaidetza Saila	Mekanismoak ezarri izana: bai/ ez
	Herriko elkarteei formazioa eskaintzea berdintasun gaietan, formula ezberdinen bidez.		X		X		X	Berdintasun Saila	Trebakuntza eskeini izana: bai/ez Eskainitako trebakuntza orduak. Trebakuntza-saioetako asistentzia (sexua,

3.2. Emakumeen partaidetza soziopolitikoa eta eragina sustatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
									elkarteak) kop. Trebakuntza-saioetako balorazioak (sexuaren arabera)
3.2.3. Udal politika publikoetan eragiteko bideetan sakontzea	Udalak sustatutako parte hartzeko aukerei lotutako emakumeenganako bazterketa-mekanismoen gaineko ezagutza sakondu			X	X	X	X	Partaidetza Saila	Emakumeenganako bazterketa-mekanismoetan sakondu izana: bai/ez Ezagutzan sakontzeko esku-hartze kopurua
	Emakumeek berdintasunerako udal politiketan parte hartzeko eta eragina izateko mekanismoak ezartzea eta finkatzea					X		Partaidetza Saila	Mekanismoak ezarri izana: bai/ ez
	Emakumeek udal politiketan parte hartzeko eta eragina izateko, Emakumeen Kontseilua finkatzea eta udal-jardunean integratzea.	X	X	X	X	X	X	Partaidetza Saila	Emakumion Kontseilua udal-jardunean integratu izana: bai/ez Emakumion Kontseilua finkatzeko zehaztutako formula
	Genero- ikuspegia txertatzea parte hartzeko bitarteko berrien diseinu, garapenen eta ebaluazioan, bai eta dagoeneko martxan daudenen funtzionamenduan ere.		X	X	X	X	X	Partaidetza Saila	Genero-ikuspegia txertatu izana: bai/ez

4. EKONOMIA- ETA GIZARTE-ERALDATZAILEA									
4.1. Berdintasuna, gizartea eta ekonomia eraldatzeko balioa									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
4.1.1. Diskurtso feministaherritarren artean zabaltzeko ekimenak garatzea, berdintasunaren aldeko gizarte eredu bateranzko oinarri gisa	Berdintasunaz sentsibilizatzeko data zehatzetan egin diren kanpaina eta sentsibilizaziorako ekimenak burutzea, mugimendu feministarekin elkarlanean	X	X	X	X	X	X	Berdintasun Saila	Kanpainak/sentsibilizazio-ekintzak garatu izana mug. feministarekin elkarlanean: bai/ ez
	Berdintasunari lotutako prestakuntza-saio espezifikoak antolatu, kolektibo espezifikoen beharretara egokituz.		X		X		X	Berdintasun Saila	Prestakuntza-saioak antolatu izana: bai/ez Prestakuntza-saioetan parte hartu duten kolektiboak Saioetako parte-hartzaile kopurua sexuaren arabera
	Berdintasuna ekonomia eraldatzeko balio gisa gogoetarako espazio zehatza sortu prozesu globalago baten barruan.				X	X	X	Berdintasun Saila	Gogoetarako espazioa sortu izana: bai/ez Espazio horretako parte-hartzaile kopurua sexuaren arabera
4.1.2. Ekonomia sozial eraldatzailearen aldeko ekimenak babestea	Ekonomia sozial eraldatzailearen aldeko ekimenen babeserako baliabide ekonomiko eta materialak bideratzea.		X	X	X	X	X	Enplegua, Merkataritza eta Garapen ekonomikoa Saila	Baliabide ekonomiko eta materialak bideratu izana: bai/ez Laguntzaren zenbatekoa
	Esperientzien trukerako, eztabaidarako eta elkarlanerako guneak eskaintzea.		X	X	X	X	X	Enplegua, Merkataritza eta Garapen ekonomikoa Saila	Esperientzien trukerako, eztabaidarako eta elkarlanerako guneak sortu izana: bai/ez Guneetako partaide kopurua sexuaren arabera

4. EKONOMIA- ETA GIZARTE-ERALDATZAILEA

4.1. Berdintasuna, gizartea eta ekonomia eraldatzeko balioa

Helburu operatiboa	Ekintzak	2021	2022	2023	2024	2025	2026	Arduradunak	Adierazleak
4.1.3. Oñati herri-hezkidetzailea egitasmoa sendotzea	Hezkidetza-egitasmoa finkatu, indartu, eta egitasmoa zer beste eremuetara zabalduko den identifikatu: eskola-kirola, aisialdi-taldeak, musika-eskola, hezkuntza ez-formaleko beste eragileak... hezkuntza departamenduarekin eta bestelako departamenduekin elkarlanean.	X	X		X	X		Hezkuntza Saila Berdintasun Saila	Hezkidetza-egitasmoa finkatu-indartu da: bai/ez, egitasmoa zabalduko den eremuak identifikatu dira: bai/ez
	Identifikatu diren eremu guztiak aztertuko dituen diagnostikoa egin, eta herri hezkidetzailea martxan jartzeko lan-ildo edo estrategia nagusiak identifikatu eta plangintza batean zehaztu.			X	X	X		Hezkuntza Saila Berdintasun Saila	Diagnostikoa egin da bai/ez Estrategiak jasotzen dituen plangintza egin da: bai/ez Definitu diren estrategiak Inplementatu direnen %
	Herri hezkidetzailea dinamikaren inguruko gogoetarako GUNEA martxan jarri, hezkidetza-mahaia oinarri hartuta, eremu berrietara zabaltzeko aukerarekin.			X	X	X	X	Hezkuntza Saila Berdintasun Saila	GUNEA martxan jarri izana: bai/ez GUNEko partaide kopurua sexuaren arabera

4.2. Emakumeen autonomia ekonomikoa

Helburu operatiboa	Ekintzak	2021	2022	2023	2024	2025	2026	Arduradunak	Adierazleak
4.2.1. Emakumeen lan-baldintza duinak sustatzea	Herri-mailako diagnostikoa burutzea eta ordorioak gizarteratu. (emakume ekintzaile, autonomo.. errealitateak ere kontuan izanik)				X			Enplegua, Merkataritza eta Garapen ekonomikoa Saila	Diagnostikoa burutu izana: bai/ez, ondorioak gizarteratu dira: bai/ez

4.2. Emakumeen autonomia ekonomikoa									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
								Berdintasun Saila	
4.2.2. Pobreziaren feminizazioa murrizten laguntzeko programak garatzea	Emakumeen bizi baldintza duinak bermatzeko esku-hartzeak definitu eta sustatzea.				X	X	X	Berdintasun Saila	Esku-hartzeak sustatu izana: bai/ez Bizi baldintzak duintzeko esku-hartzeen jasole kopurua
	Pobrezia egoeran edo arriskuan dauden emakumeei Udalak eskaintzen dizkien baliabideak aztertu eta horiekiko gogobetetzea neurtu, eta baliabideak/zerbitzuak hobetzeko egitasmoak, programak edo laguntzak martxan jarri.	X	X	X	X	X	X	Ongizate Zerbitzuak	Gogobetetzea neurtu izana: bai/ez Gogobetetze neurketaren emaitzak Baliabideak/zerbitzuak hobetzeko egitasmoak martxan jarri izana: bai/ez

5. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

5.1. Indarkeria matxistaren prebentzioa

Helburu operatiboa	Ekintzak	2021	2022	2023	2024	2025	2026	Arduradunak	Adierazleak
5.1.1.Indarkeria matxistaren prebentziorako bitartekoak eta kanpainak bideratzea.	Indarkeria matxistaren detekzioan sakontzeko sentsibilizazio programak garatu		X	X	X	X	X	Ongizate Zerbitzuak	Sentsibilizazio programak garatu izana: bai/ez
	Jaietan eman daitezkeen eraso sexisten prebentzioa, mugimendu feministarekin, tabernekin eta jai batzordeekin elkarlanean	X	X	X	X	X	X	Berditnasun Saila Jai-batzordea	Prebentziorako egitasmoak, programak garatu izana: bai/ez
	Beharrezkoak diren bitartekoak sortu eta hedatu	X	X	X	X	X	X	Ongizate Zerbitzuak	Bitartekoak sortu eta hedatu izana: bai/ez
5.1.2. Baliabideen inguruko ezagutza handitzea	Oñatiko herritarrei, oro har, bideratutako informazio-kanpainak abian jartzea.		X	X	X	X	X	Ongizate Zerbitzuak	Informazio-kanpainak martxan jarri izana: bai/ez Kanpaina kopurua Kanpainen jasoleak biztanleriaren %
	Atzerriko eta adineko emakumeengana hurbiltzeko mekanismoak martxan jarri		X	X	X	X	X	Ongizate Zerbitzuak	Harremana/hurbilpena egindako atzerriko/adineko emakume kop.

5.2.indarkeria matxista jasan duten emakumeen arreta integrala bermatzea

Helburu operatiboa	Ekintzak	2021	2022	2023	2024	2025	2026	Arduradunak	Adierazleak
5.2.1. Indarkeria matxista jasan duten emakumeen leheneratze integrala (juridiko, ekonomikoa,	Udalak eskaintzen dituen eta udalaz gaindikoak diren laguntza ekonomikoen errebisio eta egokitzapena, autonomia ekonomikoa berreskuratzera begira		X					Ongizate Zerbitzuak	Laguntza ekonomikoak errebisatu izana: bai/ ez Egokitzapenak egin diren laguntza ekonomikoen %

5.2.indarkeria matxista jasan duten emakumeen arreta integrala bermatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
osasun-arlokoa...) bermatzea, ahalduntzearen ikuspegi batetik	Indarkeria jasan duten emakumeek eskura dituzten baliabideen azterketa egin, eta hauek osatzeko bitartekoak ezarri.			X				Ongizate Zerbitzuak	Eskura dituzten baliabideen azterketa egin izana: bai/ez Osatzeko bitartekoak jarri izana: bai/ez Jarritako bitartekoen kop.
	Artatze-prozesuan esku-hartzen duten langile guztiei formakuntza eskaini indarkeria matxista kasuen aurrean artapen egokia egiteko.	X			X			Ongizate Zerbitzuak	Artapen egokia egiteko trebakuntza eskaini izana: bai/ez Eskainitako trebakuntza ordu kop. Trebakuntza jaso duten langileen % Trebakuntzetan parte hartu duen langile kop. sexuaren eta lanpostuaren arabera
	Erreparazio sozial-publikorako ekimenak diseinatzea eta garatzea, emakumeekin elkarlanean.			X	X	X	X	Berdintasun Saila	Erreparazio sozial-publikorako ekimenak diseinatu izana: bai/ez Ekimenen garapen-maila %
5.2.2. Ahalduntze prozesu kolektiboak bideratzea	Emakumeek lideratutako oneratzera bideratutako espazio kolektiboa sortu edo ahalbidetzea.			X	X	X	X	Ongizate Zerbitzuak	Espazio kolektiboa sortu izana: bai/ez
5.2.3. Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta integralerako instituzio arteko koordinazioa hobetzea	Instituzioen arteko koordinaziorako Protokoloaren ebaluazioa sistematizatu	X	X	X				Berdintasuna	Protokoloaren ebaluazioa sistematizatu izana: bai/ez
	Jarraipen mahaiko eragileen arteko koordinazio-mekanismoak sistematizatu		X	X	X			Berdintasuna	Koordinazio-mekanismoak sistematizatu izana: bai/ez
	Eskuhartzea ahalduntzera bideratzeko jardute protokoloaren jarraipena egitea.			X	X	X	X	Ongizate Zerbitzuak	Jardute protokoloaren jarraipena egin da: bai/ez
	Jarraipen mahaian, emakumeen informazioa biltzeko erabiltzen den datu basea osatzen eta aberastea.		X	X	X	X	X	Berdintasun Saila	Datu-basea osatu da: bai/ez

5.2.indarkeria matxista jasan duten emakumeen arreta integrala bermatzea									
Helburu operatiboa	**Ekintzak**	2021	2022	2023	2024	2025	2026	**Arduradunak**	**Adierazleak**
5.2.4. Indarkeria matxistaren prebentzio, detekzio, arreta eta erreparazio integralerako, herriko eragileen inplikazioa eta jarrera aktiboa sustatzea	Protokoloak herriko eragile anitzekin lantzea, mugimendu feminista barne. Herri mailako sare sendo bat sortzeko helburuarekin.		X			X		Berdintasun Saila	Herri-mailako sarea sendotu da: bai/ez Elkarlanean aritutako eragileak
	Erantzun instituzional bateraturako protokoloaren ebaluazioa sistematizatzea.			X	X	X	X	Berdintasun Saila	Protokoloaren ebaluazioa sistematizatu izana: bai/ez

4. Planaren kudeaketa-sistema

4.1. Plana kudeatzeko egiturak

Oñatiko Berdintasunerako II. Planaren garapen egokia bermatzeko, **beharrezkoak diren koordinazio-egiturak sortu eta martxan jarriko** ditu Udalak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorrei jarraituz: "Euskal herri-aginteek, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta beren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorragoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezen"..

Oñatiko Berdintasunerako II. Plana **zeharkakotasuna**ren ikuspegitik landuko da, hots, Udalaren arlo eta zerbitzu guztiek bere gain hartuko dute, bai neurrien kudeaketa ekonomikoetan eta gauzapenean islatu den konpromiso formal gisa, bai emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromiso gisa; konpromiso pertsonal horrek erantzukizunak bere gain hartzeko eta berdintasunerako politiken arloko trebakuntza-saioetan, bileretan... parte-hartzeko prozesuan izango du isla.

Zeharkakotasuna eta **arlo guztien inplikazioa ezinbestekoak** izango dira Plana aurrera eraman ahal izateko. Izan ere, Berdintasun teknikariaren lana eta inplikazioa ez ezik beste alorretako teknikariena ere beharrezkoa izango da, Planak alor ezberdin asko ukitzen baititu eta lana modu transbertsalean egitea askoz eraginkorragoa izango da benetako inpaktua lortzeko.

Planaren bidez erdietsi nahi diren erronkak lortzeko, hainbat lan-esparru edo egitura beharrezkoak izango dira. Horietako bakoitzak funtzio eta zeregin zehatzak izango ditu. Lau dira garapenerako proposatzen ditugun egitura nagusiak:

1. Berdintasun Saila
2. Berdintasunerako Sailarteko batzorde teknikoa
3. Batzorde Politikoa
4. Emakumion Kontseilua

Jarraian, proposatutako egiturak, horien osaera eta funtzioak azaltzen dira.

4. Planaren kudeaketa-sistema

Planaren garapenaren **ardura nagusia Berdintasun Sailak** izango du. Hau izango da planaren jarraipen estuena egingo duena, urtean urteko kudeaketa planak eta ebaluazioak burutuko dituena eta abar.

Berdintasun Teknikariak, berdintasuneko berariazko masterra eta esperientzia du, eta lanaldi osoz dabil berdintasun gaietan.

1. BERDINTASUN SAILA
Berdintasunerako II. Planaren garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea.

Parte-hartzaileak

- Berdintasunerako arduradun politikoa.
- Berdintasun teknikaria.

Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurriak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Planaren garapenean inplikatutako egitura eta eragile guztiak koordinatzea.
- Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea.
- Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea.
- Planaren komunikazioa egitea.
- Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea.
- Planaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egitea.

Funtzionamendua

- Bi astetik behin koordinazio-bilerak egiten ditu gune honek.
- Hala ere, komunikazioa etengabekoa da, eta koordinatu beharreko gai gehiago izanez gero, maiztasun handiagoz batzen da.

4. Planaren kudeaketa-sistema

Orain arte martxan egon ez bada ere, sailen arteko koordinazioa bermatzeko batzorde teknikoa ezinbestekoa izango da Planaren garapen egokia eta koordinatua egon dadin. Honela bada, **maila teknikoan koordinazioa bermatzeko moduak zehaztu beharko ditu Oñatiko Udalak**. Horretarako aukera posible bat, adibidez, hurrengo egitura sortzea eta martxan jartzea litzateke:

2. BERDINTASUNERAKO SAILARTEKO BATZORDE TEKNIKOA
Berdintasunerako II. Planaren garapen-tekniko koherente eta koordinatua bermatzea, eta baita Planaren jarraipena egitea ere.

Parte-hartzaileak

- Berdintasun-teknikaria.
- Udal-sail bakoitzeko arduraduna.

Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurri guztiak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Udalean genero-zeharlerrotasun estrategia txertatzea errazteko komunikazioa erraztea eta ahalbidetzea.
- Sailetako langileei genero-ikuspegiarekin lan egin dezaten laguntza eskaintzea, izan ditzaketen zalantzei edo kezkei erantzuna emanez.
- Sailetako langileei trebakuntza eskaintzea.
- Berdintasun Planaren segimendurako tresna elikatzea eta eguneratuta mantentzea.
- Ekitaldi bakoitza bukatzean urteko txostena egitea; egindako jarduerei, erabilitako bitartekoei eta baliabideen jarraipenari buruzkoa, Berdintasunerako II. Planean aurreikusitako helburuak bete ote diren egiaztatzeko.

Funtzionamendua

- Planaren garapenean zehar maila teknikoan koordinazioa bermatzeko moduak zehaztuko ditu Oñatiko Udalak. Horren arabra, funtzionamendua ere zehaztu beharko ditu.

4. Planaren kudeaketa-sistema

Koordinazio politikoari dagokionez, Planari jarraipena egiteko orain arte martxan egon den egitura mantenduko da, Batzorde Politikoa hain zuzen. Honen baitan Berdintasunaren ardura daukan alkateaz gain, Parte Hartzearen arduradun politikoa, Udaleko alderdi politiko guztietako ordezkariak / oposizioko ordezkariak egongo dira.

3. BATZORDE POLITIKOA Berdintasunerako II. Planaren jarraipena egitea.
Parte-hartzaileak
• Berdintasuneko arduradun politikoa. • Berdintasun-teknikaria. • Udaleko alderdietako berdintasunaren ardura duten ordezkari politikoak.
Funtzioak
• Planaren helburuen betetze-mailaren jarraipena eta kontrol politikoa egitea. • Neurri zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea. • Emakumion Kontseilutik jasotako proposamenak baloratzea eta, hala erabakiz gero, hauek aplikatzeko neurriak hartzea.
Futnzionamendua
• Berdintasun Batzordeak hilero bilerak egiten jarraituko badu ere, gutxienez urtean bitan bilduko da berariaz Planari segimendu estua egiteko, urte hasieran eta urtearen erdia burutu ostean. • Horrez gain, gainontzeko ohiko bileretan ere egingo dio segimendua Planaren ekintzen aurrerapen-mailari.

4. Planaren kudeaketa-sistema

Horietaz aparte, **Emakumion Kontseilua** mantentzea ere aurrikusten da, herriko emakumeek eta mugimendu feministako eta emakumeen-elkarteetako kideek berdintasunerako politiketan eragin eta parte hartu ahal izateko.

4. OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUA **Berdintasunerako II. Planaren garapenari jarraipena eta ekarpenak egitea.**
Parte-hartzaileak
• Oñatiko Emakumion Kontseilu kideak. • Berdintasun teknikaria. • Partaidetza-teknikaria
Funtzioak
• Planari segimendua egitea eta aurreikusitako ekintzak betetzen ari direla bermatzea. • Planean aurreikusitako ekintzei eta hauek planifikatzeko moduari ekarpenak egitea, Udalari aholkua emanez. • Planarekin lotutako hainbat ekintza puntual antolatzea, Udalarekin elkarlanean. • Berdintasunaren alde lan egiten duten eta lan egiteko prest dauden elkarteen eta Udalaren arteko elkarlana bultzatzea, Plana herriko errealitatera egokitu dadin.
Funtzionamendua
• Egitura honek duen biltzeko maiztasuna errespetatuko da. • Kontseiluko bileren garapenean zehar definituko dira bere funtzioak planarekiko

4. Planaren kudeaketa-sistema

Aipatu berri ditugunak Oñatiko Udalak Berdintasun Planari zein berdintasun politikei oro har segimendua egiteko berariaz sortu dituen edota sortuko dituen egiturak dira. Hala ere, horiez gain **udalaz gaindiko bestelako koordinazio espazioetan** ere parte hartzen jarraituko du Berdintasun Sailak edota Udalak berak. Horien artean daude BERDINSAREA, Gipuzkoak Foru Aldundiak sustatutako guneak... Horiez gain, berdintasunaren bidean lanean dabiltzan gainerako Udal edota entitaterekin koordinatzeko espazio ezberdinetan parte hartzea baloratuko eta sustatuko du Oñatiko Udalak.

Lantalde hauez guztiez gain, Planean zehar planteatzen diren lanketa zehatz edo puntual batzuk egiteko **berariazko lantaldeak** sortzea baloratu daiteke sei urte hauetan zehar: hezkidetza mahaia... Batzuk, aurrez aipatutako guztiak kasu, egonkorrak izango dira eta Planak dirauen bitartean mantendu egingo dira. Beste batzuk, aldiz, momentu puntualetarako sortuko dira eta lanketa konkretu hori burutu ostean desagertu ahalko dira. Azken batean, koordinaziorako behin-behineko tarteak izango dira, ekintzaren bat burutu ahal izateko berariaz sortuak.

4. Planaren kudeaketa-sistema

4.2. Plana garatzeko baliabide ekonomikoak

Berdintasun Sailak 2021erako aurreikusita duen aurrekontua 212.717,92 €-koa da. Aurrekontu honek Planeko ekintzak aurrera eramatea ahalbidetuko du. Honela, ekintza-planean aurreikusi bezala, urtetik urtera handitzen joango da Berdintasun Sailari zuzendutako aurrekontua, lan egiteko baliabide egokiagoak izatea ahalbidetuz. Beste alde batetik, aipatu beharra dago urte batzuetan Planak aurrekontu handiagoa eskatu dezakeela, beraz, hori ere kontuan hartu beharreko zerbait da aurrekontuak zehazterako orduan.

Beste alde batetik, Planean bertan jasotzen den bezala, gainontzeko sailek ere Planean beraiei dagozkien ekintzak garatu ahal izateko aurrekontua aurreikusi beharko dute.

4. Planaren kudeaketa-sistema

4.3. Planaren ebaluazio-sistema

Ebaluazioa funtsezko prozesua da Planaren betetze-maila zein den eta martxan jarritako ekimenek zer inpaktu izan duten jakiteko. Zentzu horretan, **hiru ebaluazio-mota** burutuko ditu Oñatiko Udalak: alde batetik, **betetze-mailari** dagokiona, **emaitzei** dagokiena eta **inpaktuari** dagokiona.

Ebaluaziorako sistema egokia ezarriz, hurrengo **helburuak** lortu ahal izango ditugu:

- Oñatiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana aplikatzeak eman dituen **emaitzak ezagutzea**.
- Planaren neurriekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako **arazoak detektatzea**.
- Berdintasun-politikak **erraztu edo lagundu dituzten faktoreak** identifikatzea.
- Genero-zeharlerrotasunaren estrategiak Udalaren barne-funtzionamenduan duen eragina, zein berdintasun-politikek herriarengan eta herritarrengan izan duten balizko **inpaktua edota eragina zein den ezagutzea**.

Planaren indarraldia 6 urtekoa izanik, **tarteko ebaluazioa bat egingo da 2023. urtean**, legegintzaldi aldaketarekin koinziduz. Eta **bukaerako ebaluazioa 2026ko bukaeran.**

- Ebaluazioak egiteko urteko memorien, segimendurako tresnaren eta koordinazio- eta kudeaketa-egituren bidez jasotako informazioa erabiliko da.
- Planaren ebaluazioa (eta balizko egoeraren diagnostiko berria) burutu ahal izateko, **eragile gako batzuekin elkarrizketak** zehaztuko dira.
- Ebaluazioari begira **lan-saio ezberdinak** proposatuko dira herritarrekin, udaleko teknikariekin eta ordezkari politikoekin, ikuspuntu anitz guztiak jaso ahal izateko.

4. Planaren kudeaketa-sistema

Ebaluaziorako **irizpide orokorrak** honako hauek izango dira:

- **Inpaktua**: Planak Udal barruan eta udalerrian izan duen eragina eta eragin dituen aldaketak.
- **Eraginkortasuna**: Planaren erronka eta helburuen betetze-maila eta neurrien garapen-maila.
- **Estaldura**: Planaren onuradunen kopurua eta Planaren garapenean lortutako parte-hartzea zenbatekoa eta zer kalitatekoa izan den.
- **Betearaztea**: ezarritako kronogramaren betetze-maila eta Planari esleitutako aurrekontuaren egokitasuna.
- **Kalitatea**: Planaren segimendu eta ebaluazioan bildutako datuen eta informazioaren kalitatea.

4.3.1. Inpaktu adierazleak

Berdintasun Plana izatea eta hau garatzea garrantzitsua da, baina betetze-maila bezain garrantzitsua (edo garrantzitsuagoa) da egiten ari garen lanarekin lortzen ari garen inpaktua neurtzea. Horretarako, Planean proposatutako ekintzak aintzat hartuta, helburu bakoitzean aurrerapausoak ematen ari garen ala ez neurtzeko inpaktu-adierazle batzuk zehaztu ditugu.

Hona hemen inpaktu-adierazleen zerrenda. Hauei segimendua egitea ahalbidetuko du Exceleko tresnak.

HELBURUAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK
1.1.1.Udal-jarduera guztian genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza areagotzea udal-teknikari eta langileen artean bai eta udaleko zerbitzuen ardura duten eta azpi kontratatutako zerbitzuetako langileen kasuan ere.	Trebakuntzarako eskaini diren ikastaroak (izenburua) eta ordu-kopurua. Trebakuntza-saioetan parte hartu duten pertsona kopurua eta deitutakoen %, sexuaren eta sailaren arabera.

4. Planaren kudeaketa-sistema

HELBURUAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK
1.2.4.Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	Berdintasun-klausulak aplikatu diren guztizko kontratuen %
1.2.5.Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.(Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioaren azterketak)	GEAEa kopurua eta arloaren arabera sailkatuta.
1.2.6.Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatea.	Eredua definitu da bai/ez.
1.3.1.Udaleko sailen arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko, egiturak, bitartekoak, formulak sortzea eta elikatzea	Sailarteko egituraren osaera eta maiztasuna. Parte-hartzaileen perfila (saila eta sexuaren arabera) eta haien asistentzia-maila.
2.1.3. Zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz trantsitatzeko urratsak ematen hastea, gogoeta eta praktika eraldatzaileak uztartuz.	Definitu diren egitasmo berritzaileen kopurua. Martxan jarri diren egitasmo berritzaileen kopurua.
2.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko banaketa justuagoak sustatzea, gizonak zuzenean interpelatuz	Gizonen erantzukidetasuna sustatzeko esku-hartze ildoak diseinatu eta garatu.
2.2.2. Udalerriko enpresetan kontziliaziorako neurrietan erantzunkidetasuna sustatzea eta zaintzarekiko erantzukideak izateko testuingurua sortzea	Praktika eredugarriak garatu dituzten enpresa kopurua eta enpresa-tipoa (kooperatiba, SL, SA... eta langile kopurua sexuaren arabera bereizita)
2.2.3. Erakunde publikoen eskaintza birpentsatu eta hobetzea	Eskaintza hobetzeko definitu eta inplementatu diren esku-hartze kopurua eta mota.
2.3.2. Zaintzaile profesionalen lan-baldintzak hobetzea	Gizarte-ekimeneko zenbat egitasmo jarri dira martxan/babestu dira. Egitasmoen nolakotasuna.

4. Planaren kudeaketa-sistema

HELBURUAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK
3.1.1.Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikorako espazioak / Emakumeon Etxea garatzea ikuspegi intersekzionala ardatz	Ahalduntze programaren irismena neurtzea, parte-hartzaileen profilari erreparatuz. Ahalduntze programan parte hartzen duten emakumeen gogobetetzea/bestelako beharrak identifikatzeko galdetegiaren emaitzak
3.2.1. Mugimendu feministaren eta emakumeen antolakuntza-gaitasunak eta eragin politikoa indartzeko esku-hartzeak (martxan jartzea) babestea	Babesak hartu duen forma, zertan gauzatu den. Aurrekontuaren zein % bideratu da honetara.
3.2.2. Gizarte- eta komunitate-sarea indartzea genero-ikuspegitik	Elkartegintzan egin diren esku-hartzeak. Elkartegintzaren osaketa sexuaren eta aniztasun-mailaren arabera, bazkideak eta zuzendaritza-markoak bereiziz.
3.2.3. Udal politika publikoetan eragiteko bideetan sakontzea	Parte hartzeko bitarteko berrien diseinu, garapenen eta ebaluazioan, bai eta dagoeneko martxan daudenen funtzionamenduan ere, genero- ikuspegia txertatu izana.
4.1.1. Diskurtso feminista herritarren artean zabaltzeko ekimenak garatzea, berdintasunaren aldeko gizarte eredu bateranzko oinarri gisa	Gogoetari bide eman zaion, zein markotan... Gogoetan parte hartu duten adituak.
4.1.3. Oñati herri-hezkidetzailea egitasmoa sendotzea	Herri Hezkidetzailea egitasmoaren irismena neurtu: Zenbat haur eta gazterengana iritsi da. Martxan jarritako dinamiketan parte hartzaileak sexuaren eta adinaren arabera. ...
4.2.2. Pobreziaren feminizazioa murrizten laguntzeko programak garatzea	Oñatiko pobreziaren tasaren eboluzioak programek izandako inpaktua neurtzen lagunduko digute.

4. Planaren kudeaketa-sistema

HELBURUAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK
5.2.1. Indarkeria matxista jasan duten emakumeen leheneratze integrala (juridiko, ekonomikoa, osasun-arlokoa...) bermatzea, ahalduntzearen ikuspegi batetik	Egindako ekimen kopurua eta nolakotasuna. Irismena zelan neurtu kualitatiboki?
5.2.4. Indarkeria matxistaren prebentzio, detekzio, arreta eta erreparazio integralerako, herriko eragileen inplikazioa eta jarrera aktiboa sustatzea	Sarearen deskribapena.

4.3.2. Urteko kudeaketa-planak

Oñatiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana **urteko kudeaketa-planen bidez antolatu eta garatuko da.**

- Plana indarrean egongo den **urte bakoitzean urteko kudeaketa-plan bat** prestatuko da, aintzat hartu beharreko helburuak eta neurriak zehaztu ahal izateko. Programazio horiek Berdintasun Sailak landuko ditu, eta eragindako gainerako udal-sailekin kontrastatuko ditu. Planean ekintza bakoitza zer urtetan burutu behar den zehaztuta dago, hala ere, urtekako planek jarraipena erraztuko dute eta momentuko beharretara egokitzea ahalbidetu. Kudeaketa Plan hau, gainera, sail bakoitzera egokituko da. Hau da, Exceleko tresnak aukera ematen du ekintza bakoitzaren arduraduna nor den edo nortzuk diren filtratzeko eta, beraz, sail bakoitzari berari urte horretan dagozkion ekintzak bakarrik emateko.

- Urte bakoitzaren hasieran, Berdintasun Sailak aurreko urtean garatutako kudeaketa-planari dagokion **memoria** idatziko du; horretarako, udal-sailek emandako informazioa erabiliko du.

- Urtez urteko **memoria-txostenak Planaren jarraipenerako Batzorde eta guneetan aurkeztuko dira.**.

4. Planaren kudeaketa-sistema

4.3.3. Planaren segimendua

Oñatiko Berdintasunerako II. Planari segimendua egin ahal izateko, Elhuyarrek **Excel tresna bat sortu** du, Berdintasun teknikariari segimendu hau era erraz batean egitea ahalbidetzeko.

Excel dokumentua **lau orrialde edo ataletan banatuta** dago: Planaren ikuspegi orokorrari dagokiona, Planaren bermeak, Plana bera osotasunean eta inpaktu adierazleei dagokiena.

Lehenengo atalak Planaren argazki orokorra zein den ikusten lagunduko digu, hau da, planteamendu orokorra zein den argitzen eta orotara nolakoa den ikusten.



Bigarren fitxa edo atalean, **Planaren bermeak** jaso ditugu eta horien betetze-mailaren jarraipena egiteko adierazleak zehaztu ditugu.

4. Planaren kudeaketa-sistema



Oñatiko_Berdintasunerako_II_Plana_8b.xlsx - Microsoft Excel

Oñatiko berdintasunerako II. Planaren bermeak

Bermeak	Egitasmoak	ADIERAZLEAK
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso politikoa	Udal gisa genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartu (konpromisoa onartu Udalbatzan), horretarako beharrezko bitartekoak bideratu eta koordinazio-egiturak onartuz.	Udalbatzan genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartu izana : Bai/ez Onartutako konpromisoaren forma eta babesa: zer eratako konpromisoa hartu da (adierazpena...) eta zenbateko babesa izan duen (ahobatez onartua, aldekokontrako botoak) Estrategia garatzeko koordinazio-egiturak edo koordinatzeko bideak martxan jarri izana, horien izaera (zer eratako egiturak jarri diren martxan) eta partaideak (kopurua, sailak, pertsonak sexuaren arabera)
Beharrezkoak diren baliabideak (aurrekontua, giza-baliabideak, baliabide teknikoak) berdintasuneko politika publikoen esku jartzea.	Berdintasun politikak garatzeko beharrezko aurrekontua bermatzea.	Berdintasun politikak garatzeko urtekako aurrekontua kopurua eta aurrekontu osoarekiko zer % den
	Berdintasuneko aurrekontua urtetik urtera igotzea.	Aurrekontua zer % igo den aurreko urtearekiko.
	Berdintasun politikak garatzeko beharrezko bitartekoak (giza-baliabideak barne) bermatzea, pertsona horien lan-baldintzak zainduz.	Berdintasun politikak garatzeko baliatutako bitartekoak Bitartekoen nolakotasuna: lanpostuak finkatu diren, kontratazio berririk egin bada zein baldintzetan... Pertsonen kasuan lan-baldintzekiko asebetetze-maila
Planean inplikatutako erakunde eta sailen erantzukidetasuna.	Berdintasunerako gobernantzaren ardatzean jasotako ekintzek norabide horretan eragiteko bokazioa dute. Berdintasuna sustatzeko sail guztien erantzukidetasuna lortzea prozesu bat da: lan egiteko moduak aldatzea eskatzen du (elkarlanean) eta norberaren lana ulertzeko moduak ere aldatzea (orain arte "besteen" gaitzat hartu izan ditugunak geure eginez...). Berme hau ezinbesteko baldintza da genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko eta, aldi berean, erronka bat ere bada.	Sail ezberdinen arteko lankidetzaelkarlanaren bidez garatutako ekimen kopurua (urteka, inplikatutako sailak) Bi (edo hiru) urteriik behin erantzunkidetasun-maila neurtzeko inkesta. Inkestan jasotako emaitzen eboluzioa lirateke adierazlea.

Hirugarren atalean **Planaren zehaztasunak** ikusi ahal izango ditugu. Ekintza guztiak zehaztasunez, bakoitza zein urtetan garatu behar den, arduraduna zein den eta abar. Gainera, atal honek ekintzen **betetze-mailaren segimendua** egin eta urtez urte zer egin den eta zer ez jasotzeko aukera ere ematen du. Honela, urtez urte ekintzen betetze-maila zein den eta honen inguruko oharrak jasotzen joango gara, segimendu estua egitea ahalbidetuz.

4. Planaren kudeaketa-sistema



Inpaktu adierazleen segimendua laugarren atalaren bidez egin ahal izango dugu. Honetarako, beti ere ekintza zehatzak kontuan hartuta, helburu bakoitzari lotzen zaizkion inpaktu-adierazle batzuk identifikatu ditugu, egiten ari garen lan hori zer eragin izaten ari den neurtu ahal izateko.



EKINTZA-GAKOEN INPAKTU-ADIERAZLEEN TAULA

HELBURUAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026
1.1.1.Udal-jarduera guztian genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza areagotzea udal-teknikari eta langileen artean bai eta udaleko zerbitzuen ardura duten eta azpi kontratatutako zerbitzuetako langileen kasuan ere.	Trebakuntzarako eskaini diren ikastaroak (izenburua) eta ordu-kopurua. Trebakuntza-saioetan parte hartu duten pertsona kopurua eta deitutakoen %, sexuaren eta sailaren arabera.							
1.2.4.Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	Berdintasun-klausulak aplikatu diren guztizko kontratuen %							
1.2.5.Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.(Generoaren Araberako Aurretiazko Ebaluazioaren azterketak)	GEAEa kopurua eta arloaren arabera sailkatuta.							
1.2.6.Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.	Eredua definitu da bai/ez.							
1.3.1.Udaleko sailen arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko, egiturak, bitartekoak, formulak sortzea eta elikatzea	Sailarteko egituraren osaera eta maiztasuna. Parte-hartzaileen perfila (saila eta sexuaren arabera) eta halen asistentzia-maila.							
2.1.3. Zaintza-eredu justu eta erantzukide baterantz trantsitatzeko urratsak ematen hastea, gogoeta eta praktika eraldatzaileak uztartuz.	Definitu diren egitasmo berritzaileen kopurua. Martxan jarri diren egitasmo berritzaileen kopurua.							
2.2.1. Emakumeen eta gizonen arteko banaketa justuagoak sustatzea, gizonak zuzenean interpelatuz	Gizonen erantzukidetasuna sustatzeko esku-hartze ildoak diseinatu eta garatu.							
2.2.2. Udalerriko enpresetan kontziliaziorako neurrietan erantzunkidetasuna sustatzea eta zaintzarekiko erantzukideak izateko testuingurua sortzea	Praktika eredugarriak garatu dituzten enpresa kopurua eta enpresa-tipoa (kooperatiba, SL, SA... eta langile kopurua sexuaren arabera bereizita)							
2.2.3. Erakunde publikoen eskaintza birpentsatu eta hobetzea	Eskaintza hobetzeko definitu eta inplementatu diren esku-hartze kopurua eta mota.							

OROKORRA / BERMEAK / II. PLANA_AZKENA / INPAKTU ADIERAZLEAK

4. Planaren kudeaketa-sistema

Tresna elikatzeaz Berdintasun teknikaria arduratuko da nagusiki; hala ere, aproposena litzateke sailetako arduradunek bakoitzari dagozkion ekintzen betetze-maila osatzea. Honen segimendua egiteko sailarteko guneak eratu ahalko dira.

Informazio hau guztia, aurrez aipatutako memoria-txostenak elikatzeko baliatu daiteke.

5. Planaren Komunikazioa

Komunikazioa Berdintasunerako Planen arrakastarako gakoetako bat da. Komunikazioa beharrezkoa da herritarrei eta eragileei asmoen berri emateko eta baita Planaren garapenean euren parte-hartze aktiboa eta inplikazioa lortzeko.

Hori dela eta, urtero, **Berdintasunerako Planari lotutako komunikazio-plana** lantzea aurreikusten da. Bertan jasoko dira, Planaren garapenean zehar sozializatu beharreko mezuak, bitartekoak eta baliabideak.

Planaren garapenean **3 komunikazio-une garrantzitsu** egongo dira:

1. Hasierako komunikazioa:

Behin Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana onartuta, horren berri emango da bai Udal barruan baita herrian ere:

- **Udal-langile** guztiei eta, bereziki, Planaren ekintzen garapenean ardura zehatzak dituzten langileei:
  - Planaren nondik norakoak azaltzeko guneak sortu beharko dira.
  - Udal-langile guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
  - Plana sozializatzeko euskarria bidaliko zaie.
- **Ordezkari politiko** guztiei:
  - Planaren nondik norakoak sakonago azaltzeko plangintza espezifikoan sakontzeko lansaioa antolatuko da.
  - Ordezkari politiko guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
- **Emakumion Kontseiluari:**
  - Planaren aurkezpena egingo da bilera batean.
  - Planaren txostena bidaliko zaie.
- **Herritarrei**:
  - **Prentsa ohar baten** bidez prozesuaren amaieraren berri eta Plan berriaren indarraldiaren berri emango zaie herritarrei.
  - Planaren nondik norako nagusien berri emateko **euskarri bat** sortuko dugu sare sozialen bidez eta Udaleko bitartekoen bidez zabaltzeko.
  - Plana Udaleko **webgunean txertatuko** da herritar guztientzat uneoro eskuragarri egon dadin.

5. Planaren Komunikazioa

- Inork informazio gehiago nahi edo beharko balu Berdintasun Sailera jotzeko aukera izango du.

2. Berdintasunerako Planaren garapeneko urteetan

- **Udal-mailan**:
  - Udal-mailan dauden segimendurako egituren bidez emango zaie langileei Planaren garapenaren berri; gune teknikoak eta Batzorde politikoa baliatuko dira horretarako.
- **Herri-mailan:** Planarekin lotutako ekintza batzuek beste batzuek baino lanketa komunikatibo handiagoa eskatuko dute, herritarren parte hartzea edo inplikazioa beharko duten heinean. Kasuan kasu egokitzen joan beharko gara.
  - **Udaleko webgunean** Planaren inguruko informazio eguneratua izango da; sare sozialak ere erabiliko dira, batik bat ekintza puntualen berri emateko.
  - **Berdintasun Kontseiluan** Planaren segimendua egingo da, honen nondik norakoak bileretan berariaz landuz.

3. Planaren amaierako komunikazioa

Berdintasunerako II. Plana osotasunean garatu ondoren, **ebaluazioan lorturiko emaitzen gaineko informazioa zabalduko** da Udal barruan zein herri mailan.